

LURRALDE TASUNA ETA LURRALDEAK EUSKAL HERRIAN (Tomas Urzainki)

KEPA SOJO zinegilea

GIZARTE FOROA

kontrairo taldea

irati anda eskalatzailea

mendeberri aldizkaria

bidaia: eslovenia-kroazia-bosnia-herzegovina

GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA

V
E
U

CEGASA EVOLUTION

Energiaren indar bizia

BELAUNALDI BERRI BATENTZAKO PILA BERRIAK



LR03/AAA



LR14/C



LR6/AA



LR20/D



Ekipo elektroniko berriek energia berria behar dute, aipatu ekipo horiek eskatzen duten korrante intentsitate altuko beharrari erantzuna emango dion potentzia handiagoko energia.

Erronka berri honi Cegasa-k emandako erantzuna **CEGASA EVOLUTION** da, goragoko potentzia garatzen duen prestazio handiko pila alkalinoen belaunaldi berri bat. Azken belaunaldiko aparatuentzako energia iturri egokiena.



CEGASA
INTERNATIONAL

CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A. Artapadura, 11 - Apdo. 3280 - 01013 GASTEIZ

Bezeraorentzako arreta telef.: 902 322 232 • E-mail: info@grupocegas.com • www.cegas.com

Fundación Sancho el Sabio Fundación

ahorik aho:



10-11.
orr.

KONTRAIRO TALDEA:
harrapazak!!



12-13..
orr.

ESKALADA:
irati anda



14-15..
orr.

MENDEBERRI, mendebaldea
institutuko aldizkaria

gaika:

17-19.
orr.



GIZARTE FOROA



20-21.
orr.

GATAZKEN BITARTEKARITZA:
alberto olalde & bildumediación

GAINERA...

• **Han-hemenka** (4-8. orr.):

deialdia: aek eguna. **iritzian:** iñaki mtz. de luna;
araba euskaldunagoa / gasteizera plataforma.

kaleak dio: urtarok. **zenbakia.** **ikusi:** gasteiz
rock-az blai. **araba bixotzian** (abarrots).

• **EUSKALTASUNEAN LAGUN** (16. orr.): arantza
bilbao mendez.

• **KULTURAI SIALDIARI SO** (23-35. orr.):

agenda (23). **idazleen gupila** (amaiera)-
karmele jaio: 'jainkoarenak egiten' (24-25).

historia zertzeladak-tomas urzainki:

lurraldetasuna eta lurraldeak euskal herrian (26-
27). **arte txokoa:** kepa sojo zinegilea (28-29).

naturaren isladak (iñaki zorrakin) (29); **bidaiak:**
eslovenia-kroazia-bosnia-herzegovina (30).

sukaldaritza (31). **denbora-pasa** (31). **geu-ren**
gunea: geu elkarte, geu-ren eskaintza eta
gomendioa (32-34). **komikia** (iñigo sarasola) (35).

Azala ...



Udaren bisita luze eta sargoritsuaren ostean udazkenari
irekitzen dizkiogu ateak, ikasturte berri bati ongi etorria
egiten diogularik. Batzuk pozik, besteak triste. Baina
egunek aurrera darraite eta guztiok horiei eutsi
behar. Bolada berri bat dator, erronka berriak, ilusio
berriak, asmo berriak... baita gai berriak ere.
Urriko ale honetan lurraldetasunak hartu du azala.
Zuen interesekoa izango naizelakoan...
geu aldizkaria

argazkia: nabarralde (Nafarroa etarra)

> **GEU**

GEU Elkartaren ekimenez sortua (1992)
Geu aldizkari taldeak egin, bideratua eta kudeatua
Erredakzioa: Pedro Asua, 2-3.a. - 01008 Gasteiz
Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate
Aldizkari batzordea: josune velez de mendizabal, edorta sanz, edurne
begiristain, estitxu breñas eta
david alvez
Kazetariak: leire lpz. de aberasturi, edurne begiristain,
josune velez de mendizabal
Argazkiak: edorta sanz


Bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate
Testuen orrazketa-zuzenketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate
Maketa: patirke sanz eta david alvez
logoa: io grafix
komikia: iñigo sarasola
Kolaboratzaileak ale honetan: iñaki mtz. de luna, gasteizera plataforma, iñaki zorrakin,
abarrots, karmele jaio, tomas urzainki eta diocesan-
-mendizorrotzak ostalaritza eskola.
Publizitatea eta Banaketa: edurne begiristain
Sustapen-harpidetza saila: edurne begiristain, e.b.z.,
Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Ale kopurua: 2.500
LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper berziklatuaz egin dago. Geu aldizkariak
ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



ahorik aho:



10-11.
orr.

KONTRAIRO TALDEA:
harrapazak!!



ESKALADA:
irati anda

12-13..
orr.



14-15..
orr.

MENDEBERRI, mendebaldea
institutuko aldizkaria

gaika:

17-19.
orr.



GIZARTE FOROA



20-21.
orr.

GATAZKEN BITARTEKARITZA:
alberto olalde & bildumediación

GAINERA...

• **Han-hemenka** (4-8. orr.):

deialdia: aek eguna. **iritzian:** iñaki mtz. de luna;
araba euskaldunagoa / gasteizera plataforma.

kaleak dio: urtarok. **zenbakia.** **ikusi:** gasteiz
rock-az blai. **araba bixotzian** (abarrots).

• **EUSKALTASUNEAN LAGUN** (16. orr.): arantza
bilbao mendez.

• **KULTURAI SAILDIARI SO** (23-35. orr):

agenda (23). **idazleen gupila** (amaiera)-
karme le jaio: 'jainkoarenak egiten' (24-25).

historia zertzeladak-tomas urzainki:

lurraldetasuna eta lurraldeak euskal herrian (26-
27). **arte txokoa:** kepa sojo zinegilea (28-29).

naturaren isladak (iñaki zorrakin) (29); **bidaiak:**
eslovenia-kroazia-bosnia-herzegovina (30).

sukaldaritza (31). **denbora-pasa** (31). **geu-ren**
gunea: geu elkarte, geu-ren eskaintza eta
gomendioa (32-34). **komikia** (iñigo sarasola) (35).

Azala ...



Udaren bisita luze eta sargaritsuaren ostean udazkenari
irekitzen dizkiogu ateak, ikasturte berri bati ongi etorria
egiten diogularik. Batzuk pozik, besteak triste. Baina
egunek aurrera darraite eta guztiok horiei eutsi
behar. Bolada berri bat dator, erronka berriak, ilusio
berriak, asmo berriak... baita gai berriak ere.
Urriko ale honetan lurraldetasunak hartu du azala.
Zuen interesekoa izango naizelakoan...
geu aldizkaria

argazkia: nabarralde (Nafarroa ertarrea)

> **GEU**

GEU Elkartaren ekimenez sortua (1992)
Geu aldizkari taldeak egina, bideratua eta kudeatua
Erredakzioa: Pedro Asua, 2-3.a. - 01008 Gasteiz
Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate
Aldizkari batzordea: josune velez de mendizabal, edorta sanz, edurne
begiristain, estitxu breñas eta
david alvez
Kazetariak: leire lpz. de aberasturi, edurne begiristain,
josune velez de mendizabal
Argazkiak: edorta sanz

Bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate
Testuen orrazketa-zuzenketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate
Maketa: patirke sanz eta david alvez
logoa: io grafix
komikia: iñigo sarasola


Kolaboratzaileak ale honetan: iñaki mtz. de luna, gasteizera plataforma, iñaki zorrakin,
abarrots, karme le jaio, tomas urzainki eta diocesan-
-mendizorrotzak ostalaritza eskola.

Publizitatea eta Banaketa: edurne begiristain
Sustapen-harpidetza saila: edurne begiristain, e.b.z.,
Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Ale kopurua: 2.500

LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago. Geu aldizkariak
ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:





AEKeguna urriaren 26an Abetxukon

"gure herrian gure hizkuntzan"

AEKeguna, Euskal Herriko Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundeko (AEK) ikasle, irakasle, laguntzaile eta euskaltzale guztien eguna da. Urtero, herri desberdin batek hartzen du jai hau antolatzeko ardura eta Abetxukon, Araban, izango da aurtengo edizioa. Kurtso hasieran ospatzen denez, helburuetako bat ikasturte berriari behar bezalako harrera egitea da.

Era berean, AEKren lana plazaratuko da eta lan horiek egin ahal izateko dirua bilduko da. Azpimarratzekoa da AEK Euskal Herri osoan ari dela lanean, euskarak eta berau berreskuratzeko beharrak hala eskatzen duelako. Gure hizkuntza bere eremu osoan hedatu behar dugu eta horretarako guztion ahalegina beharrezkoa da.

Euskal Herria eta bereziki Arabaren moduko egoera soziolinguistikoa duten lurraldeak berreuskalduntzeko euskal hiztunen kopurua handitu beharra dago. Dakitenek euskara erabili egin behar dute eta ez dakitenek ikasi. Horretarako erraztasunak ematea eta baldintzak sortzea ezinbestekoa da. Euskalgintza helburu hori lortzearen ari da lanean, eta euskararen normalizazio prozesuan erakunde eta talde hauek egiten duten lana behar-beharrezkoa da. Baina euskarak aurrera egitea ez da erakunde batzuen lana edo euskaltzale batzuen burutazioa soilik; euskarak aurrera egingo badu, batetik herritarrek eta norbanako bakoitzak ere badu zereginik. Bestalde, instituzioek ere badute horretan zer esana, euskara jakitea eta edozein egoeratan erabili ahal izatea herritar guztion eskubidea baita. Esan beharrik ere ez dago, euskarak lege babesa behar duela bere lurralde osoan: ofizialtasuna.

Zergatik Abetxukon?

Abetxuko berria, eraiki zenetik, langile herria izan da. Azken hamarkada hauetan herri mugimendua bizirik egon da. Batetik, Gasteizko udalerriaren parte ez, baizik eta herri izan nahi dutela aldarrikatzen dute behin eta berriro. Bestetik, euskararen berreskurapenean ere lan ugari egin izan dute euskaltegiek, lagun koadrilek, Euskaraz Bizi taldeak,

gazte asanbladak, ikastolak etab. Ondorioz, gero eta euskaldun gehiago dago herrian. Eta gero eta lagun gehiago da Abetxukon ere, Euskal Herriko gainerako herri guztietan bezala, euskaraz aritzeko eskubidea dugula aldarrikatzen dutenak, beraz, "gure herrian gure hizkuntzan" leloarekin bat egiten dutenak.

Guk argi daukagu gure herrietan gure hizkuntzan ariko bagara, aurrerapauso nabarmenak eman beharrean gaudela, Euskal Herriko herri eta hiri guztietan eta bizitzako esparru guztietan gure hizkuntzan aritzeko eskubidea errespetatua izan dadin: euskaraz bizitzeko eskubidea. Horixe aldarrikatuko dugu Abetxukon urriaren 26an bilduko garen euskaltzale guztiok.

Arabako euskaltzale guztiok AEKegunera!

Aldarrikapena eta festa uztartuko dira AEKegunean. 5 gune izango dira eta gune horietan era guztietako ekitaldiak izango dira: bertako produktuen azoka, artisau azoka, kale animazioa, bakarriketak, gaiteroak, fanfarreak, bertsolarien bira, herri kirolak, kontzertuak, herri bazkaria, erromeria, umeentzako gunea, gaztelu puzgarriak, pailazoak, tirolina, Tibeteko zubia, txosnak, tonbola, euskaltegien arteko olinpiadak, ogitartekoak, trikitilariak, umeentzako herri kirolak,... Denetik eta denentzako ekitaldiak izango dira eta euskaraz eta euskararen alde gozatzeke aukera paregabea.

Gainera, esan behar da, gune guztietan aterpea dagoela eta eguraldi txarra egiten badu ere (nahiz eta gu ziur egon eguzki epel zoragarria aterako dela egun horretan), ez da guardasol beharrik izango.

Beraz, Arabako euskaltzale guztiei deia eta gonbidapena luzatzen diegu urriaren 26an Abetxukora joan daitezen. Euskara geure hizkuntza da, defendatu beharrekoa, erabili beharrekoa eta gozatu beharrekoa. "Gure herrian gure hizkuntzan" leloarekin bat eginda bilduko gara AEKegunean, egun zoragarri bat izango baitugu zain bertan.

gasteizko aek



Iñaki mtz. de luna,
soziologian doktorea. euskal herriko
unibertsitateko irakaslea

ARABA EUSKALDUNAGOA

2001eko zentsuko informazioan oinarrituta, euskarak izan duen bilakaeraz EUSTATEk zenbait informazio interesgarri kaleratu zuen joan zen uztailen.

Arabari dagokionez, badaude hainbat datu pozgarri, itxaropenaren ateak -askotan hain itxita daudenak- pixka bat zabaltzen dizkigutenak.

1991-2001 denbora tartearen kontuan hartuta, arabar euskaldunen proportzioa %8,6tik %16,2ra igo da. Horrezaz gain, ia zortzi puntukoa den hazkunde hori, Euskadiko Autonomia Erkidegoan izandakoa baino puntu eta erdi handiagoa dugu.

Albiste pozgarria, dudarik gabe, baina era berean itzal ilunak dituen. Goazen, bada, gure kezka azaltzera.

Jakina da euskara ikasteko bi bide nagusi daudela: gurasoengandik jaso edo etxetik kanpo ikasi (hezkuntza sistemaren bidez nahiz gaueskoletan). Baina, ume eta gazteen gaineko ikerlanek agerian utzi dute euskara erabiltzeari gehien eusten diotenak, familian ikasi dutenak direla; horrezaz gain, ikastetxeetan ere euskaraz ikasi badute, hainbat hobe! Gainontzeko kasuetan, hau da, euskara eskolan -baina ez familian- ikasi dutenek erabilera baxuagoa dute (edo ez dute batere erabiltzen).

Horren azalpena begi-bistakoa da: erdal munduaren indarraren aurrean, soilik euskararen munduan nahikoa murgilduta hazi direnek lortzen dituzte erabilerarako beharrezkoak diren gaitasuna, bat-batekotasuna eta ohitura; eta beste baldintza hau ere inork baino hobeto betetzen dute horiek: euskaraz egin ohi duten pertsonekin harreman ugari izatea (familia artekoekin nahiz lagunekin).

Arabari, tamalez, euskara familian ikasi dutenak gutxi dira, eta horrek eragiten du arabar euskaldunek euskara gutxi erabil dezatela. Hau da, gurasoen belaunaldia erabat erdalduna izanik, neska-mutil euskaldun askok, gehienek, euskara ikastetxearen bidez ikasi dute, eta eskolatik kanpo ez dute non erabili.

Horretan ere, alabaina, badago joera interesgarri bat Araban: 1991tik 2001era bitartean ama edo lehen hizkuntza euskara dutenak asko igo dira kopuru absolututan: 12.359tik 16.956ra, hain zuzen. Halere, ezin da ahaztu familiaz kanpo soilik ikasi dutenak familian ikasi dutenen halako bi direla.

Azkenik, beste datu andana: 1991n etxean euskara erabiltzen zutenak 3.616 baino ez ziren; 2001ean, aldiz, 5.504raino iritsiz. Era berean, etxean euskara eta gaztelania, biak, erabiltzen dituztenak 7.525 izatetik 10.095 izatera igaro dira hamar urteko epe horretan. Euren apaltasunean, itxaropenerako datuak dira, dudarik gabe.

Aurrera goazen arren, baina, euskaltzale orok ezin du ahaztu Araban euskararen aldeko joera ez dela batere sutsua, pasiboa edo geldoa baizik. Eta honako hau ez da iritzi hutsa, dokumentatutako datua baizik: SEME-ALABARIK IZANEZ GERO, ARABARREN %50EK B EREDURA BIDALIKO LUKETELA, eta ez D eredura, Bizkaian edo Gipuzkoan bezala.

Bukatzeko, eta zenbaki nekagarriak behingoz utzita, horra hor nire azken kezka: hain nekeza eta gogorra izanik, poliki baina aurrera doan prozesu horri luzaroan eusteko gai izango gara? Eta martxa hori areagotzeko kapazak?

Gasteizera

"GERO ETA OKERRAGO"

Gasteizko presoen egoera, politiko zein sozialena, erabat larria dela eta eskubide juridikotik kanpo dagoela nabarmena da. Nahiz eta "que gozan de un trato de favor y de una situación de privilegio" behin eta berriro aurkezten saiatzen diren batzuk..., baita askok sinetsi ere. Zein eroso bizitzen den nahizko jakingabezi batean!!!

Gure bizilagunak Gasteiztik gero eta urrutirago eramaten dituzte, ehunka edo milaka kilometrotara sakabanatuak, Frantzia zein Espainian. Bidaia garestiak, luzeak, neketsuak, astunak, ilunak, ixilak... Senide eta lagunek orduak eta orduak bota behar dituzte errepide arriskutsuetan astero 40 minutuko bisitatxo bat egiteko, bakarrik ikusteko gehienetan eta noizbehinka ukitu eta besarkatzeko "bis a bis" eskas batzuetan. Barruan daudenak ere urduri... lokutorioetan elkar ikusi arte edo eta telefono deia egin arte eta onean etxera ailegatu direla entzun arte. Kontuz ibili! ¡No corráis! Ez hator bakarrik!... zenbatetan entzun halakorik. Eta istripuak.

"Las penas privativas de libertad se cumplirán en los centros más próximos a la residencia de los internos para evitar el desarraigo social y familiar, en línea con el espíritu de reinserción social de las mismas". Ley Orgánica General Penitenciaria, 12. art.

Egunak, asteak, hilabeteak, urteak... zenbat daramat? Zenbat geratzen zait? Papera, boligrafoa, legeak... kontuak egin... alperrik. Kondenako 3/4ak beteta eduki arren ez dute askatzen baldintzapeko askatasunean. Hecha la ley, hecha la trampa. "Bai, 3/4ak bete ditu, baina 1. gradoan dago eta beraz, ez du legea betetzen". 5, 10, 15, 20 urte 1. gradoan? Hau komeria!

"Todo preso con las 3/4 partes de la

condena cumplidas tiene derecho a la libertad condicional". Código Penal, 90. art.

- Aurpegi txarra daukazu, ondo zaude?
- Ez dakit, azken bolada honetan ez nago erabat ondo, hemengo hotza agian...
- Ba joan zaitez medikugana!
- Joan naiz jada... pirula batzuk eman dizkit, bat goizean eta bestea gauez.

Ondoeza, mina, gaixotasuna. Kanpoko konfidantzako sendagilea ezin sartu kartzelara, barruko gaixoari ez diote kanpoko medikugana ateratzen uzten. Kartzelako medikuen bisitetan betikoa: bi pirula, bata goizean bestea gauez... eta gaixotasuna aurrera. Diagnostikoen falta edo okerrak. Azkenean sendaezina, betirako gaixotasuna, barruan hartutakoa edo kanpotik ekarritakoa berdin da, sendaezina, betirakoa. Eta kartzelan, atentzio onik gabe, elikadura egokirik gabe, bizi baldintza estuetan.

"No obstante, se podrá obtener la libertad condicional sin extinguir las 3/4 partes de condena en casos de personas enfermas muy graves, con padecimientos incurables". Código Penal, 92. art.

Gero eta okerrago. Urtetan egindako ahaletinak, oso baldintza prekarioen gainean ere, alperrik. E.H.U.an ikastea debekatu diete. Ikasketa batzuk ikastea debekatu diete. Euskara ikastea debekatu diete. Zein hurrengoa? Baina historia pixkat egin dezagun.

1999 urteko azken hilabeteetan GASTEIZERA plataforma azaldu zen Gasteizko kolektiboaren artean: garai hartan Gasteizko presoen, politikoen zein sozialen, egoera larriarekin oso kezkatuak geunden hainbat talde, partido, sindikatu, kolektibo eta agente sozialak. Helburua, garbia: Gasteizko presoen egoera eta zegozkien eskubideen lege-haustea gasteiztar guztien aurrean jakinarazi eta

salatzea. Eta zentzu horretan hainbat manifestaldi, mobilizazio, olerkialdi, literatur lehiaketa, sinadura bilketa, inauteriak, eta abar antolatu dira.

Lan horretan bere ekarpena egin nahi duen orori jarrera pasiborik ez izateko eskatu diogu eta parte hartzeko bide eta esparru erakargarriak eskaini dizkiogu. Ildo horretan, gizarte sektoreak lan horretara ekarriko dituen dinamika integratzailea bultzatzen saiatu gara. Gure mezua errepikakorra iruditu arren, behin eta berriro isilarazten duten errealtate gordinaren isla baino ez da. Eta, hortaz, preso dauden guztiek dituzten eskubide horien urraketa kalean salatzeak herritar solidarioen lana izaten jarraitzen du.

Jakin badakigu gizartea bera dela bidezko helburu horiek egia bihurtuko dituen subjektu aktiboa eta, horregatik, berari eskatzen diogu lan horretan bere indarrak jar ditzala eta arazo horiek amaitzeko parte aktiboa har dezala.

Horretan egon gara, horretan gaude eta, kurtso berri honen hasieran, horretan egongo gara. Berbetan behin eta berriro, betiko nahiz talde edo sektore berriekin; ekitaldietan, burua hausten gero eta ekimen erakargarriagoak eta irudikorragoak antolatzen saiatzen; kaleetan, presoen eskubideak errespetatuak izan behar direla guztiei, nahiz eta gor bihurtu nahi, ozenki esateko.

Gure hastapenetan esan genuen legez, egoera bidegabe horiek amaitzekotan, denok mugitu behar dugu gure pieza.

Gure berriak izango dituzu laster.

UDATIK UDAZKENERA. URTAROAK

Udazkena gehienontzat kurtso berri baten hasiera da. Haurrak eskoletara eta langileak beren zereginetara. Hala ere, ilusio berriak eta amets biziak berriz ere pizteko parada izaten dugu garai honetan. Nahiz eta gehientsuok udara nahiago, hobe dugu umoretsu eta gogoz hartzea. Uda amaitu da eta udazkena gainean dugu: ez dago atzera bueltarik.

1.- Zein urtaro duzu gogokoen?



RAUL DZ. de GARAIO
Soldatzailea

- Uda, noski, eguraldi ona, beroa eta egun luzeak direlako nagusi.
- Ez, batez ere hurrengo oporrak noiz iritsiko zain.

2.- Udazkenari gogoz heltzen al diozu?



AITOR ZAMAKONA
Heziketa fisikoko irakaslea

- Uda oso gogokoa dut, argitasuna eta temperaturagatik.
- Bai, urtaro aldaketei ondo heltzen diet. Ona izaten da noizean behin ohikeria aldatzea, ezta?



TAMARA PEREZ
Ikaslea

- Udara. Gauza asko ikasteko aukera izaten dudalako.
- Ilusio berrieekin eta oso motibaturik.



NATI
Garbitzailea

- Uda berezia da. Denontzako urtaroa da, elkarrekin bizitzeko, disfrutatzeko...
- Gogoz, semea ondo haziko den itxaropenaz.

zenbakiak

86.003

86.003 euskaldun (euskaldunak + ia euskaldunak) eta 125.512 erdaldun daude Gasteizen (211.515 biztanle, 2001ean).

114.219

114.219 euskaldun (euskaldunak + ia euskaldunak) eta 165.241 erdaldun daude Araban (279.460 biztanle, 2001ean).

EUSTAT-2001eko datuak (2003ko uztailean argitaratuak).



AZKENA rock jaialdia 2003

GASTEIZ ROCK & ROLL-EZ BUSTI ZEN IRAILAREN 2. ASTE-BURUAN. BILDURIKO LAGUN MULTZO ITZELA SOBERAN ASEBETE ZUTEN BERTARATU ROCK IZARREK (IGGY POP, THE CRAMPS, CRACKER, THE HELLOCOPTERS, PETTI, RAY DAVIES, ZEIN, ETA BESTE ASKO...). GASTEIZEK KALITATEZKO MAKRO-JAIALDI BAT BEHAR ZUENeko FROGA!

Araba bixotzian





adaka **M**
madinabeitia

**Floridako
altxorra !
35**

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 • GASTEIZ

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

EYSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege alea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

MultiOpticasen benetako Multieskaintzak

MULTIOFERTAS
MULTIOPTICAS

bonardi aire
ARMAZOIAK

49€ baino ez

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Zuriaren plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Eskaintza honek 03/09/15etik 08/10/31ra arte du balioa

Informa zaitetz gure Kreditu Txartelen abantailez

KONTRAIRO: "harrapazak!!"

"ZORTZIKOTE IRAUNKOR BAT LORTUTA, MEMENTOA APROBETXATU NAHI DUGU"



Trikitixa Kontrairo taldea duela hamar urte sortu zen eta bere hirugarren diskoa atera du uda aurretik. Taldeak izan dituen aldaketak direla medio ez du oso ibilbide emankorra izan -grabatutako diskoei dagokionez-, baina zortzi kide-dun talde iraunkorra lortu eta gero dinamika aldatzeko prest daude Kontrairo-ko kideak eta datorren urtean beste disko bat kaleratzeko lan egingo dutela iragarri dute. GEUK Kontrairoko kideekin hitz egin du, beren azken lanaren berri izan eta asmoen gainean galdetzeko.

- Zer eskaintzen du zuen hirugarren diskoak besteekin alderatuta?

Soinutasun handiagoa eta berria, tresna gehiago sartu baititugu, mandolina esaterako. Bestela, taldearen estiloa finkatuta dagoela uste dugu eta gure musikak hiru hanka dauzkala esaten dugu guk: rocka -bateria, baxu eta gitarra elektrikoarekin-, euskal musika eta zelta.

- Zer harrera izan duela iruditzen zaizue?

Araba Euskaraz-en kontzertua eman genuen, nahiz eta oraindik diskoa grabatuta ez zegoen, eta gero aurkezpena San Kristobalگو jaietan izan zen; jendeari gustatu zaiola dirudi, gainera, kontzertuetan ez ditugu bakarrik diskoko kanta jotzen, dantzarako beste abesti batzuk ere sartzen ditugu eta entzuleak gustura egon ohi dira.

- "Harrapazak!" diskoa aterata, udan aurreko urteetan baino kontzertu gehiago izan dituzue?

Guk duela hiruzpalau urte askoz ere gutxiago deitzen zigutela nabaritu genuen, baina nahiko gauza orokorra izan zen, jende guztiak komentatzen zuen arazo

berdina zeukala. Baina bestela, 20-30 kontzertu egiten ditugu urtero eta hortxe-hortxe egongo gara aurtan ere.

- Kontzertu gehienak Euskal Herrian egiten dituzue, baina Galizan ere ibiliak zarete, ezta?

Iaz Galizan egon ginen bi aldiz eta oso erantzun ona jaso genuen, baina bestela, noski, gehienbat Euskal Herrian jotzen dugu.

- Araban batez ere?

Ez, batez ere Bizkaian. Araban gutxiago jotzen dugu, baina normala da, zeren herri gutxiago baitago eta gainera txikiagoak dira, orduan, edo oso talde 'potentea' eramaten dute, edo berbena talde bat, dantzarako.

- Lau urte grabatu barik... Etenik bai?

Duela hamar urteko Gasteizko jaietan hasi ginen jotzen eta ordutik ez da benetako etenik egon, beti jarraitu dugu jotzen eta. Hala ere, egia da etenik egon ez bada ere lau urtez diskorik grabatu gabe egonda jendeak pentsa dezakeela 'utzi al diote jotzeari?'.



- Eta zergatik ez duzue diskorik grabatu? Baliabide falta izan al da arazoa?

Ez, batez ere jende aldetagatik. Beti gabiltza berdin: materiala biltzen dugu, taldeko norbait joaten da, beste norbait etortzen da eta horrek kantak ikasi behar ditu, orduan beste bat joaten da eta berriro hasi behar... Orain zortzikote iraunkor bat lortu dugu eta gauzak aldatuko direla uste dugu.

- Zertan aldatuko dira gauzak?

Orain mementoa aprobeztatu nahi dugu, eta gauzak ondo ateratzen badira datorren urtean beste disko bat egiten saiatuko gara.

- Zuen musika rock, musika zelta eta tradizionalaren nahasketa bat dela esan duzue. Egun Araban eta Euskal Herrian dagoen panorama musikala aztertuta, zuek zer ekarpen egiten duzuela uste duzue?

Gaur egun ez dago Araban gurea bezalako musika egiten duen beste talderik, ezta Euskal Herrian ere. Oso zaila da talderen batekin konparatzea; agian Celtas Cortos aipa daiteke erreferentzia bezala eta jendeari zer musika egiten dugun azaltzeko. Bestetik, aitatu behar da hemengo doinuak berreskuratzen lan egiten dugula ere, gure disko guztietan Arabako abesti tradizionalen bat sartu dugu.

- Abestiei buruz ari garela, aipatu izan duzue amodiozko asko dagoela diskoan.

Txantxa da: aurreko diskoa atera genuenean elkarriketa guztietan esaten ziguten oso arraroa zela amodiozko kantarik ez egotea. Eta egia zen, baita kasualitate hutsa ere. Eta kasualitatea ere bada "Harrapazak!!"en hiruzpalau egotea.

- Eta amodiozkoak ez direnei buruz, zer esan daiteke?

Badago bat Trebiñori buruz, 1995eko Trebiño Eguneko kanta ofiziala zenaren bertsio bat hain zuzen. Hitzak aldatu dizkiogu, zeren egun horretarako propio eginak ziren. 36ko gerrari buruzko bat ere badago, Iñaki Murua bertsolariak idatzia.

- Ruben Santxez bertsolariarekin ere lan egin duzue, ezta?

Bai, Ruben Santxezek pare bat letra egin dizkigu, oso bereziak dira, bera oso ironikoa baita. Bat Gasteizi buruzkoa da, erakusleho huts bihurtzen ari direla esaten du. Eta, arestian esan bezala, Arabako abesti tradizional baten bertsio bat ere badago: Los bailaos de Villabuena. Gainera, Etxerat-ek iaz eskatu abestia, Agur Jauna berezi bat, ska bat,...

IRATI ANDA, ARABAKO ESKALATZAILE GAZTEA



Leku ezberdinak ikusteko, bidaiatzeko eta jendea ezagutzeko asmoz hasi zen Irati Anda duela hamar urte eskalada egiten. Hogei urte dituela, bizitza erdia kirol honetatik eskegita daramala esan daiteke, beraz. Ikasketak direla-eta (SHEIko bigarren maila egiten ari da), eskaladari ez dio nahi beste denbora dedikatzen, baina hala eta guztiz ere ekainaren 21ean Ariznabarrako rokodromoan jokatu zen Euskadiko Eskalada Txapelketan hirugarren geratu zen gasteiztarra.

-Txapelketaren egun berean eman behar izan zenuten partehartzaileek izena, sorpresarik hartu zenuen izenak jakitean?

Ez nuen Leire Agirre espero, lesionatuta ibili baita. Baina horretaz gain beti bezala izan zen... jende gutxi aurkeztu ginen bai neska zein mutilen...

-Beraz, aurpegi berri gutxi urtetik urtera?

Zailtasuneko eskalada egin beharrean -honako txapelketan egin genuena- jendeak gehiago egiten du blokean. Jendea ez da honetan sartzen eta txapelketatik aldentzen dira.

-Zertan zetzan froga? Nola joan zitzaizun?

Goizeko 9etan hor geunden berotzeko. 10etan hasten zen txapelketa. Sei minutu izan genituen bidea bistaratzeko eta orduan bideari ekin genion. Emakume helduenen artean

guztiak pasa ginen finalera, hots, Leire Agirre, Esther Cruz eta ni neu. Arratsaldean jokatu zen finala eta orduan 7c / 8a zailtasuneko bidea egin behar izan genuen. Bigarren lekuan heldu nintzen final aurrekora eta hirugarren geratu nintzen finalean.

-Txapelketa honen 9. edizioa zen aurtengoa, aurretik ere parte hartu al duzu honetan?

Bai. Iaz Donostian izan zen eta aurkeztu nintzen, baita hirugarren postua lortu ere. Orokorrean azken urte hauen balorazioa egin dut eta ikusi dudana da aurreko urteetan gazteetan lehiatzen nintzela eta orain, berriz, nagusien mailan, eta aldaketa hori nabaria izan da. Hori dela eta, aurtengoa baino indartiago sentitu naiz. Nahiz eta asko entrenatu ez dudana azkenengo bi urteotan indartsuago nagoela nabaritu dut. Postuari dagokionez, aldiz, niretzat hau ez da erreferentzia ona, ze ez da jende asko

aurkezten eta hortaz, ez da dagoen mailaren isla. Honetaz gain, aurten unibertsitatea dela eta, ez naiz hainbat txapelketetara aurkeztu. Orain ari naiz saiatzen sendo jartzen maila on bat emateko.

-Txapelketa hau etxean jokatu duzu, abantaila al da hau? Zaleen babesa sentitu al zenuen?

Gustura aritu nintzen rokodromoa ezagutzen bainuen eta hori aldeko puntua da. Badakizu non heldu zinen aurrekoan... eta alde horretatik agian abantaila izan daiteke. Zaleen aldetik, oster, jende gutxi egon zen. Finalera, arratsalde partean, jende gehiago gerturatu zen; euren artean entrenatzen dugun lokaleko lagunak zeuden eta beraien animoak aditu nituen. Gertatzen dena da txapelketan zurean aritzen zarela eta gehiago ezin duzun mementoan, orduan, entzuten dituzu oihuak, baina ordurako indar gutxi dituzu.

-Zein helbururekin heldu zinen txapelketara?

Nik podiumera igo nahi nuen, behintzat itxaropena nuen, eta lortu ere egin nuen. Gehien gustatu zitzaidana izan zen bietan, final aurrean nahiz finalean, leher eginda bukatu izana. Neukan guztia eman nuen eta hori da niretzat behinik behin balio duena, gehiago egin nezakeen sentsazioarekin ez geratzea bederen... Leher eginda bukatzen duzunean aitzakiarik ez duzu eta esan dezakezun bakararra da 'gehiago entrenatu behar dut'.

-Zenbat denbora inbertitzen duzu entrenatzen?

Egia esateko gutxi, batez ere ikasketak direla eta. Baina posible izanez gero egunero noa, astero lautan..., eta gero atsedena hartu. Nire bizitzaren zati gehiena eskalatzen ematen saiatzen naiz.

-Bertsotan ere ibiltzen zara, Arabako emakume bertsolarietako bat zaitugu... Zenbat denbora eskaintzen diozu honi?

...(kar,kar)... Denbora libre

badaukat beste lagun batekin geratzen naiz bertso batzuk egiteko, edota bertso saio baten aurretik ere egiten dugu. Egia esan asteen behin geratzen gara. Bi ordu edo ordu t'erdi egon ohi gara... Denbora gutxiago ematen diet bertsoei.

-Eskaladan bertsotan bezala, neska gutxiago daude...

Egia esan eskalatzen duten emakumeak badira, baina entrenatzen jarraikortasun bat daukatenak, berriz, ez... saiatzearen balore hori emakumezkoengan gutxiago barneratuta dago... ez dakit hori izango ote den, baina gizartean bertan ere emakumezkoaren papera eta gizonezkoarena oso ezberdinak dira eta kirola gizartearen zati bat da eta hor ikusten da.

-Eta Araban zutaz gain etorkizuneko beste gazte baten izenik ba ote dago?

Araba mailan nik dakidala bederik ez. Gipuzkoa mailan zerbait gehiago badago baina Araban, txapelketetan behintzat, ez. Dena den, nire ustez Araba dago orain indartsuen.

-Zein da kirol honetan Irati Andak daukan helburua?

Egia esan ez daukat ezer zehatza, gustatzen zait entrenatzea eta eskalatzea, baina aldi berean motibazioa mantentzea kostatzen zait. Mementoz 8 a kateatzen saiatzen ari naiz eta horretan nabil poliki-poliki. Hori bai, nahiko nuke eskalatzen bukatu zaharra naizenean ere.



MENDEBERRI ALDIZKARIA

IKASLEEK KAZETARITZAN BIDE EGINEZ



Proiektu interesgarria martxan dute Gasteizko Mendebaldea Bigarren Hezkuntzako Institutuko ikasle eta irakasleek iragan urteaz geroztik: Mendebaldea izeneko aldizkaria. 3. DBHko prentsa tailerreko ikasleek egiten dute aldizkaria, eta gehiena euskaraz idatzita badago ere, ingelesak, frantsesak, alemanierak eta gaztelarak ere badute beren lekua.

Mendebaldea aldizkaria hiruzpalau hilabetetan behin kaleratzen du Mendebaldea institutuak. 3. mailako DBHn prentsa tailerra sortu zenetik aldizkari bat ateratzeko ideia buruan bueltaka zuten kurtso horretako irakasleek, klasean teoriarik irakasten zena praktikara eramateko modua izan zitekeelakoan. Jokin Larrañaga aldizkariako koordinatzailea da, eta berak azaldu digu nolakoak izan ziren Mendebalderikoa hastapenak: "Orain dela bizpahiru urte

nahiko artisau- moduan hasi ginen egungo aldizkaria izango zena kaleratzen, fotokopia batzuekin egiten genuen... Orduan, pentsatu genuen itxuraz gain, barrukoa ere landu beharra zegoela, eta aldatzea erabaki genuen".

Aurrena diru iturriak bilatzeari ekin zioten, aldizkariaren biziraupenerako oinarritzko sostengarria, alegia. La-kuabizkarra auzoan bertan bilatu, baita emaitza nahiko onak erdietsi ere. "Auzoan dauden bezero ia guztiak lortu ditugu,



Jokin Larrañaga, aldizkari koordinatoria

bankuak, tabernak... baita Udal ere", diosku Larrañagak. Hartara, publizitatearen eta Udalaren dirulaguntzaren bitartez aurrera jotzeko oinarri sendoa dauka egun Mendiberrik.

Edukiari dagokionez, euskara bultzatzea da aldizkariaren helburu nagusia. Hori dela eta, edukiaren % 90 euskaraz argitaratzen da. Hori bai, ikastetxean irakasten diren bestelako hizkuntzek ere badute tarte, hala, ingelesak, frantsesak, alemanierak eta gaztelarak. Aldizkari eleanitza izanagatik, Mendiberriren asmoetako bat ikasleak euskal kulturaren murgiltzea dela adierazi digu Larrañagak. "Aldizkaria bide bat da ikasleak euskal kulturara hurbiltzeko, ez baitute asko ezagutzen". Bestalde, ikasleak aldizkariaren prestaketan duten garrantzia funtsezkoa dela nabarmendu du Larrañagak: "Guk ez dugu

ikastetxearen aldizkaria atera nahi, baizik eta ikasleak beraiek sortzea".

Kazetaritzari bidea eginez

Mendiberri aldizkariak hiru ale ateratzen ditu urtean: bat Aste Santua garaian, bestea udako oporren aurretik eta hirugarrena Gabonetan. Guztira 1000 ale kaleratzen ditu: 700 bat ikastetxean banatzeko, eta gainontzekoak bezeroen artean. Ale bakoitza prestatzerako orduan, irakasle eta ikasleen artean gai posibleak pentsatzen dituzte, beste egunkari eta aldizkarietan argitaratutako albiste, erreportaje eta elkarrizketei erreparatuta. Ikasleen esku dago, neurri handi batean, gai bat ala bestea aukeratzea, baina irakasleek ere lan fina egin behar izaten dute, elkarrizketak edo bestelakoak lortzeko.

Aldizkariak atal dezente ditu, eta bertan denetarikoa testu motak aurki

mendebaldea & mendeberr

daitezke: albisteak, elkarrizketak, inkestak, iritzi artikulak, erreportajeak, ikastetxearen inguruko notiziak, kronikak, komikiak, eta umore tarteak. Azken alean esaterako, Joseba Beloki txirrindulariari egindako elkarrizketa bat agertzen da. Elkarrizketa egiteko, Larrañaga bera jarri zen harremanetan txirrindulariarekin, eta elkarrizketa prentsa tailerreko bi neskek egin zituen.

Belokiren elkarrizketaz gain, bestelako gai asko jorratzen ditu ekaineko aleak. Esaterako, interneten aurki ditzakegun helbide interesgarrien inguruko informazio baliagarria, Gasteizko Gaztetxeari buruzko erreportajea, uda pasatzeko proposamenak, Mendebaldeko institutuak antolatutako kultur astearen inguruko laburpena, Araiako La Lezen egindako eskalada baten kronika, Eskola Kontseiluaz ikasleek dituzten iritziak...

Auzoko kontuei bultzada

Mendiberrik duen beste helburu garrantzitsu bat Lakuabizkarra auzoan gertatzen diren kontuak jasotzea da. "Gure asmoa da auzoko aldizkaria ere izatea", azaldu digu Larrañagak, "hau da, auzoan gertatzen denaren giltza izatea". Horretarako aurrean Lakua eta Sansomendiko Gizarte Etxeekin harremanetan jarri nahi dira, auzoan dauden kultur jarduerak aldizkarian ateratzeko aukera egon dadin.

Mementoz auzoan gertatzen diren kontuei kasu egiten saiatzen dira aldizkarian. Azken alean, adibidez, auzoan bizi den Xabi Olaso irakaslearekin mintzatu dira, eta erreportajetxo bat egin dute bere buruaren inguruan.

Etorkizunari begira animoso daude aldizkaria egiten dutenak, eta aurrera jarraitzeko prest. Gainera, kontuan izan behar da gisa horretako aldizkari oso gutxi dagoela egun Gasteizko ikastetxeetan, eta beraz, esan daiteke aitzindaria dela. Euskarari eta euskal kulturari bultzada emateko oso baliagarria den ekimena dela dudarik ez dago. Eskerrik asko, beraz, Mendebaldeko ikasleei egiten duten lanagatik, eta zorte on!



ARANTZA BILBAO:

josune velez de mendizabal

argazkia: edorta sanz

Gazte ezkondu zen Arantza Bilbao Mendez, eta ondorioz hiru alabaren ama eta bi biloben amona den arren, gazte izaten jarraitzen du Gasteizen finkaturiko bermeotar honek. San Antonio kaleak Florida kalearekin izkina egiten duen estankoan aritzen da Arantza duela zazpi urte. Bertan dituen egunkari eta aldizkarien artean Julen Guerrero eta Joseba Etxeberriaren argazkiak daude, baita Iñigo Velez de Mendizabal futbol jokalaria gasteiztarrarena ere. Zer esanik ez, beraz, Arantza Athletic taldeko zalea dela.



"Estankora gero eta jende gehiago euskaraz hitz egiten sartzeak izugarri pozten nau"

-Zer eskatzen diozu bizitzari?
Osasuna eta bakea.

-Geu aldizkaria eta Geu elkartearen berririk bai? Ez (orain arte).

-Zer ateratzen zaitu zure onetik?
Zer nahi duzu esatea... jendearen ez ulertzeak, hainbeste gauza dago Euskadin zure onetik ateratzen zaituztenak... ulertezintasunak.

-Telebistako saio bat? Euskaraz jarraitzeko ahalmen osoa ez daukadanez, filmen kasuan adibidez, gehien atsegin ditudanak erreportajeak dira.

-Film on bat? Denbora falta dela eta, zinemara ez noa baina telebistan botatzen duten edozein film irensten dut.

-Liburu bat? Azkenaldian, eta denbora falta dela eta, prentsa irakurtzen dut eta titularrak batik bat.

-Egunkari bat? Gustatuko litzaidake Berria egunkaria edota Gara-ren euskarazko testuak irakurri ahal izatea, baina euskaraz irakurtzen ikasi ez dudanez asko kostatzen zait eta hortaz, titularrak irakurtzen ditut nagusiki.

-Estanko bat izanik denetik irakurriko duzu, ezta? Ez pentsa, denetik irakurtzea gustatzen zait, eta batez ere hemengo gertakariekin zerikusirik duten berriak, baina nahiz eta aldizkari piloa eduki, ez naiz horien zale, ez zaizkit gustatzen.

-Eta jendeari? Beno, prentsa egunero erosten da, argi dago, baina aldizkariak ere asko saltzen dira, bai, jende askok ez dauka zeregin handiegirik eta nahiz eta telebistan agertutakoaren berdina

izan erosten dituzte horrelako aldizkari "arrosak".

-Zein musika atsegin duzu?
Orokorrean guztia, bortitza izan ezik.

-Jaki goxoren bat? Marmitakoa.

-Batere gustatzen ez zaizuna?
Babak.

-Azken oporrak non eta zertarako? Nire familia eta bilobekin egoteko, Bermeon bertan.

-Denbora libre gehiago izanez gero, zer egingo zenuke? Nire familiaz gozatzen emango nuke.

-Gasteizen biziko ez bazina, non? Bermeon esango nizuke, baina ohituta hiriburuaren bizitzara ziur nago herria txiki geratuko zitzaidala. Dena den, bizitza lasai egin daitekeen tokian biziko nintzateke.

-Gasteizek duen onena?
Lasaitasuna, dauden arazo politikoak kenduta (nahiz eta aipatzen dituzten adina ez izan).

-Eta txarrena? Zenbait jenderen mentalitatea. Ni bizkaitarra izanik ezberdintasuna nabaritzen dut.

-Euskaraz bizi daiteke Gasteizen? Bizi ahal izan beharko litzateke. Eta egun gero eta jende gehiago sartzen da estankora euskaraz hitz egiten eta honek izugarri pozten nau.

-Gustuko koloreren bat? Urdina.

-Zure gorputzeko atalik politena? Nire begiak adibidez, edota nire izaera.

-Zer eskatzen du herriak?
Askatasuna.



Bestelako Euskal Herria posiblea eta beharrezkoa dela erakutsi zuten iragan ekainean ehunka lagunek Gasteizen burututako Euskal Herriko Gizarte Foroaren 1. topaketetan. Mundu mailan egin diren gizarte foroak eredu gisa hartuta, eta bertan zehaztutako lan ildoak etxera ekarri ondotik, berrogeita hamartik gora gizarte mugimenduk parte hartu zuten ekainaren 27tik 29 bitartean Gasteizko Europa Jauregian eta Koldo Mitxelena institutuan antolatutako lantegi eta tailerretan.

edurne begiristain
argazkiak: edorta sanz

Euskal Herriko Gizarte Foroaren 1. Topaketak

BESTELAKO EUSKAL HERRIA ERAIKITZEN

Hortxe izan ziren, besteak beste, Euskalkidetza, Giza Eskubideen Behatokia, Hirugarren Mundua eta Bakea, Hegoa, Mugarik Gabe, Askapena, K. I., Hemen eta Munduan, KEM-MOC, ELA, LAB, EHNE, ESK, CCOO, STEE-EILAS, Bilgune Feminista, Euskadiko Gazte Kontseilua, Gazte Abertzaleak, Segi, Ezker Batua Gazteak, 8812, Eguzki, Ekologistak martxan, Gernika Gogoratuz, Batasuna, Elkarri, Euskal Herrian Euskaraz... eta beste horrenbeste gizarte mugimenduetako

ordezkariak. Guztira 1100 lagun inguru.

Orora 10 gai arloren gainean jardun zuten Foroan parte hartu zutenek, eta ardatz bakoitzaren barruan ildo desberdinak jorratzeko 60 tailer baino gehiago antolatu zituzten. Lehen topaketa arrakastatsua izan zen oso; ia ardatz guztietan elkarlanerako aukerak ikusi ziren, eta horrek aurrerantzean lan ildo praktikoa lantzeko aukera ematen baitu.

Ekaineko asteburu hartan landutako gai-ardatzetatik zenbait ondorio atera

zituzten eta zertzelada batzuk Foroaren amaiera ekitaldian aurkeztu zituzten, Europa Jauregian. Haatik, Joxemi Zumalabe Fundazioaren ekimenez, asmoa da udazken honetarako biltzea behin-betiko ondorio horiek, ondoren aztertu eta txosten bat prestatzeko. Sektorez sektore ondorioak gizar-teratzeko asmoa ere badute gizarte foroa osatu duten taldeek.

Edonola ere, topaguneko azken eguneko bilkura orokorrak ideia batzuk aurreratzeko balio izan zuen. Hala,



arabarrok euskarari BAI

www.euskoalkartasuna.org



www.gazteabertzaleak.com





Identitatea, Hizkuntza, Komunikazioa eta Hezkuntza ildoan globalizazioak hizkuntza baten bizirauteari egiten dion kaltea nabarmendu zuten, bai eta komunikazio prozesua eta berezko diskurtsoa taxutzeko gizarte mugimenduek berebiziko garrantzia dutela ere.

Nazioarteko egoeran, Ameriketako Estatu Batuen (AEB), Europako Batasunaren (EB) eta Nazio Batuen Erakundearen (NBE) "hegemonia totalitarioa" kritikatu zen. Era berean, Euskal Herria, Irak eta Palestinaren arteko elkartasunerako deia egin zen eta Sahara, Palestina eta Kubarekiko

elkartasun kanpainak abiatzea proposatu zen.

Emakumea eta Feminismoan, emakumearen egoeraren diagnostikoa egin eta alternatibak bilatzeko beharra agertu zen, eta ildo horretan 2005. urtean egingo den Emakumearen Nazioarteko Ibilaldiari begira plataforma bat sortzea erabaki zen.

Sistemaren aurkako borrokan autodeterminazioak duen garrantzia nabarmendu zuten **Autodeterminazioaren** lan ildoan parte hartu zutenek, izan ere, haien ustez, "tokian tokiko borrokek globalizazioaren aurka zer esan

handia dute". Horretarako autodeterminazioaren aldeko herrien plataforma bat sortzea proposatu zuten.

Globalizazio neoliberalari dagokionez, transnazionalen, eta mundu mailako merkataritza erakundearen politika salatu zen, bai eta zerbitzu publikoen pribatizazioa ere. **Lurraren aldeko Solasakoek,** berriz, lurraren defentsan aritzen direnak bildu eta bestelako espazio bat bilatzeko deia egin zuten, non bioaniztasunak eta janariaren gaineko kontrolak tokia izango duten.

Sozioekonomiaren arloan,

MARRAZKIAK • KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20



**EAJ
PNV**

Hitza, bihotzaren giltza:
**GORA EUSKADI
ASKATUTA!**

IRVSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

ITYRRIETA



Sagardotegia

Arraga auzoa.

Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

**OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZEHA
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK**

enpresa eredu berriak sortzeko beharra azpimarratu zuten, baliabideen aprobetxamenduan oinarrituta. Sindikatuek landutako alor honetan etxebizitza eta osasuna ere sakon jorratu ziren.

Inmigrazioan, berriz, euskal herritartasuna eta inmigranteen nortasuna defendatu zuten, eta aldi berean inmigrazioaren legedia gaitzetsi. Ildo horretan, Euskal Herriak bere inmigrazio politika propioa izatea aldarrikatu zuten.

Giza eskubideen ildoak, bestalde, zigorgabetasunarekin bukatzeko urratsak ematearen alde agertu zen, eta Torturaren Aurkako Taldeko agiriak biltzen dituen bederatzi puntuak

defendatu zituen.

Prozesu korapilatsua bezain aberasgarria

Euskal Herriko lehenengo Gizarte Foroa aurtengo ekainean aurreneko fruituak eman arren, Foroa sortzeko prozesuaren hasiera 2002ko udan kokatzen da, gizarte mugimendu batzuetako kideek ideia mahaigaineratu zutenean. Helburu zehatz batekin jaio zen, hots, Euskal Herriko gizarte mugimenduen arteko harremanei, iritzien truketari, eztabaidari eta sistemaren aurkako salaketari tarte egitea.

Apurka-apurka ideia mamituz joan zen, ekaineko topaketak egin arte. Prozesua "bizia bezain korapilatsua eta

zaila bezain aberasgarria" izan dela iritzi diote antolatzaileek. Kapitalismoaren, globalizazioaren eta neoliberalismoaren aurkako gune bihurtzeko asmoarekin jaio zen Foroa, eta aldi berean Euskal Herrian "gizarte justuagoa, partehartzaileagoa eta berdina" sortzeko indarrak batzeko asmoz.

I. topaketak ekainean egin ziren, baina Euskal Herriko Gizarte Foroa ez da hor bukatu. Iritzi trukaketarako bide bat baino ez da ireki, eta aurrerantzean bide hori ibiltzen jarraitzen segitzea da Foroko kideen asmoa. Bestelako Euskal Herria posible dela erakusteko elkarlana behar-beharrezkoa baita.

Ondorioak: www.ehgf.org



BEIRATE ESTUDIOA
Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

sartu
Zure arropa eta oinetakoa!
www.sartudenda.com
Kutilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710

HEGOALDE
Euskaltea
Matrikula zaitetz !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ


BARRA
TABERNA
Eguzkitan, zabalduz, gaitzetsi
JANTOKI BEGETARIANO
SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 68 33

Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ



Alberto Olalde.

BILDUMEDIACIÓN. GATAZKEN GESTIOA ETA BITARTEKARITZA

ALBERTO OLALDE, bitartekari eta burua:

"BESTEAREN TOKIAN JARTZEN IKASI BEHAR DUGU"

Bitartekaritza sistema aipatzean gatazka politikoa edo film estatubatuarretan agertzen diren bikoteentzako terapiak etortzen zaizkigu burura, baina inkomunikazioaren garaia den XXI. mendean negoziatzeko laguntza beharra arlo askotara zabaldu da. Alberto Olalde Bildumediación, bitartekaritza zerbitzuak ematen dituen enpresako burua eta sortzailea da, eta Eusko Jaurlaritzan lan egiten du uztailaz geroztik EAEko administrazioak arlo horretan sortu duen zerbitzuan. Berak bitartekaritza zerbitzuek eskaintzen dutena azaldu digu eta, bide batez, gatazka aldarrikatu du, "gatazka bizitza delako". Nola konpondu da gakoa.

Argazki - Estudioa
Erramun
Heracleo Fournier, 23
Irua: 13 71 02
01006
Askatasun kalea, 5
Irua: 26 19 91
01004

Dalvez
maketazioa
argitaratzailea
Tel./Faxa: 945 24 52 69
Tfnoa. 652 77 65 09
dalvez@dalvezdiseinua.euskalnet.net
diseinua

BAR KLAKÉ
KUTXA, 2
TFNO.
143883
GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

Bi pertsonaren arteko gatazka bat salaketa batekin amaitu ohi da, “arazoa edozein dela ere, berdin bikote baten banaketa zein auzoko batekin haserrea izan epailearen esku uzten da”. Horrek bi ondorio dakar, batetik, epaileak lanez lepo daudela eta, bestetik, eta garrantzitsuagoa, “arazoa ez dela konpontzen”, dio Olalde. Arazoa ez da konpontzen justiziak parte bati ematen diolako arrazoiak; besteak haserre jarraituko du, ezados, eta erabakia bete beharko du. “Arlo horretan aditua den norvegiar batek esaten du Estatuak gatazka lapurtu digula” eta berreskuratu behar dugula uste du Olalde.

Horiek dira justiziaren ezaugarriak: bati ematen dio arrazoiak eta erabakiak betebeharrezkoak dira. Bitartekaritzak, aldiz, bi aldeen interesak bermatzea du helburu, eta ez da derrigorrezkoa; guztiz kontrakoa, nahita eta norberaren borondatez joatea da baldintza bakarra. Hori bai, inork ez dezala bitartekaritzara jo irtenbide bila: “zerbitzu horrek laguntza ematen du norberak erabakiak hartzeko, bakoitzak dakielako inork baino hobeto zer den berarentzat onena”.

Familia

Eta hori nola egiten da? “Negoziatuz, bestearen tokian jarriz, bestearen sentimenduak kontutan hartuz”. Sekreturik ez dago, beraz. Errezetak arlo guztietarako balio duela dio Olalde: lan harremanak, familia, lana, eskola, politika,... Hala ere, familiarra da egun Euskal Herrian gehien eskatzen dena, eta bikote baten arteko arazoa denean emakumea da, hein handi batean, bitartekaritza zerbitzura jotzeko proposamena egiten duena.

Bikotearen arteko harremana erabat hautsi denean, “ezin dute aurrez aurre negoziatu eta bitartekariak lan egin behar du biekin banaka”. Prozesuari psikologo kutsua hartzen diotenei bitartekariak terapiarik ez duela egiten esaten die Olalde. Hori bai, “batek arazo psikologikoak dituela antzematen badugu psikologoarenera joatea gomendatzen zaio”. Baina arazorik ez badago, terapiarik ez, norberak nahi duena argi ikusteko lana baizik.

Bitartekaritza zerbitzuak abokatuenak baino gizatiarragoak direla defendatu du Olalde bitartekariak, “baita merkeagoa ere”. Defentsa sutsua egin arren Euskal Herrian jendeak ez duela bitartekariengana jotzeko ohiturarik aitortu du, nahiz eta gizartean beti egon den paper hori bete duen norbait. “Hor duzu ama”, dio irribarrez; serioago apaizek ere rol hori bete dutela gaineratu du.

Bitartekarien zerbitzua noiz behar den galdetuta,

“gatazka
bizitza da”

Haurrengandik hasi

Batzuek bitartekaritzari psikologia kutsua hartzen dioten bezala, Euskal Herrian zerbitzuaren izena aipatu eta Elkarri etorriko zaio-burura bati baino gehiagori. “Eta gure artean hitzak politikarekin duen identifikazio horrek bitartekaritzaren esparrua mugatu du”, uste du Alberto Olalde.

Muga politikatik badatorkio etorkizuna eskolan izan dezake bitartekaritzak. “Eskoletan gero eta arazo gehiago dago, haurrak arazo askorekin datozelako eta irakasleek gero eta baliabide gutxiago dituzte; beraz, iristen da memento bat zeinean elkarbizitza ezinezkoa den”, uste du bitartekari arabarrak. Egoera horren azken pausoa zigorra izan ohi da “eta zigorrak, bortitza izateaz gainera, ez du ezer konpontzen”.

Haur eta irakasleekin euskaraz egiten du lan Bildumediación-ek, interesatuek eskatzen badute. Enpresa sortu zuenetik euskarazko zerbitzua ematea erabaki zuen gasteiztarrek, nahiz eta askotan hizkera teknikoak zaila dela aitortu. “Nik Bartzelonan eta Suitzan ikasi dut, gazteleraz eta ingelesez, eta horretan saiatzen banaiz ere askotan hitz teknikoak itzultzea zaila da”, esan du bitartekariak.

Bere interesen aurka egin arren, Alberto Olalde ez du proposatzen eskolak, lantokiak, eta gizarteko esparru guztiak bitartekariez betetzea. “Hori gertatu da apur bat Katalunian, baina ez da hori proposatzen duguna, jendeak gatazkei aurre egiten ikastea baizik, irakasleek, ikasleek, gurasoek,...”. Izan ere, guraso askok seme-alabekin sokatiran aritzen diren sentsazioa dute, “eta beti galtzen dutela ikusten dute, baina ikasi beharra daukate posible dela bi aldeek irabaztea”.

Horrekin guztiarekin bi helburu lortuko direla ziur dago Alberto, gatazkak baketsuagoak izateaz gain horiek gutxitzea, “hori frogatuta baitago”.

“jendeari helarazi behar
zaio gatazkak eraldatzeko
trebetasuna”

publizitatea

Xabier
taberna
musika ona
eta giro ezin hobea
Aitzogile kalea (KUTXI), 23

Uetzal
Hegoamerikako
jantzirik ederrenak
Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko
ortzean) Tfnoa: 945 25 03 52

JOSETXO taberna
"ez dago
pintxorik"
Elizalde, z/g
Tfnoa: 945 31 45 74
ARAIA (Araba)

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • Tfno: 945 430 073

XIXILU
JATETXEA
AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 - GASTEIZ

Obren egite
eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
"Azerlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 behean - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

RAFA TEJA ATELIER
"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuz margotuak"
- ZAPIAK -
Arantza Arregui
Ramiro Maeztu, 1 - Tfnoa: 945 13 33 59

ERROTA
HORTZ KLINIKA
Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!
Jatetxea - Taberna
"EL CLARETE"
Unai eta Patsi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefonia: 945 26 38 74

URRIA

Hileko ekintza...

15

HIZKUNTZA PLANGINTZA


IKASTAROA:

Internet bidezko Graduondokoa
2003-2004

- Antolatzaileak: Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioa eta Euskal Herriko Unibertsitatea. Soziologia 2 Saila
- Zuzendaria: Iñaki Mtz. de Luna. Soziologian Doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea.
- Derrigorrezko irakasgaietako batzuk (95 ordu): **Hizkuntza gutxituak nazioarte mailan; Hizkuntza gutxituen berreskupenerako hainbat hurbilpen**

teoriko; Gizarte Psikologia,...

- Hautazko irakasgaietako batzuk (105 ordu): **Hurbilpena egoera sozio-linguistikoaren diagnosirako; Euskara: corpora eta estatua** (Hizkuntza gutxituen lege statusa; Hizkuntza eskubideen egoera Euskal Herrian; Gizarte, euskara eta komunikabideak, Euskal Herriko hizkuntza egoera; statusa; Euskalgintzaren nondik-norakoak; Euskara eta teknologia berriak; Interneten erabilera hizkuntza plangintzan); **Hizkuntza plangintzarako oinarriak eta normal-kuntzarako saioak** (Hizkuntza normal-kuntzarako plangintza orokorra; esparruz esparruko mikroplangintzak; Hizkuntza normal-kuntzarako plangintza



estrategikoa,...).

- Matrikulazioa: **URRIAREN 15 ARTE**

- Informazioa:

945231552 /

hiznet@infonegocio.com /

www.asmoz.org

13

HASIERA EKITALDIA-Hitzaldia

Lagun arteko harremanak euskalduntzeko 'Kudrillategi egitasmoa', Diego Egiazabalen eskutik.

URRIAK 13, Eusko Ikaskuntzaren Gasteizko bulegoan, 19.00etan

adi

GASTEIZKO

NAZIOARTEKO

28. ANTZERKI

JAIALDIARI

(azarora

bitartera).

7

GASTEIZKO
IRAKURLE KLUBA.

Geu elkartearen ekimenez (ikus. 33. orrialdea)

AURKEZPEN
EKITALDIA. **HARKAITZ CANOREN HITZALDIA:**
"NABOKOV-EN
SALABARDOA".
hikaateneon, 20.00etan.

10

JUAN S. MARTIN BEKA-2003. Botanika, mendizaletasuna
Antolatzailea: Eibarko Udala, Udako Euskal Unibertsitatearen laguntzaz.
Informazioa: 943707153 / euskera.ei@eibar.net
Helburua: euskarazko ikerketa sustatzea eta Juan San Martin eibartar euskalari eta ikertzailea omentzeko.
Eskaerak eta gainontzeko agiriak aurkezteko epea: irailaren 9tik urriaren 10era.

19

GEUREKIN MENDIRA

URBAN, DULANTZ (1239). SAN ADRIAN

ARDURADUNA: EDURNE (945146296)

IRTEERA: LOVAINA PLAZAN, goizeko 9.00ETAN

Beste:

3. UMORE GRAFIKOKO NAZIOARTEKO LEHIAKETA,
"Teknologia berriak" izenpean. Epea: 2003ko azaroak
3. Lanak eta datuak bidaltzeko:
hermesbarakaldo@barakaldo.org. Informazioa:
Barakaldoko Udala.

XXI. TENE MUJIKI NARRAZIO LABURREN LITERATUR SARIA.

Antolatzailea: Debako Udala.

Lanak aurkezteko epea: Azaroak 28

Informazioa: Debako Udala.

AGUSTIN ZUBIKARAI III. SARIA

Nobela laburrentzat.

Antolatzaileak: Ondarroako Udala eta Elkar argitaletxea.
Euskal kultura aberasteko eta idazleen lana bultzatzeko
Epea: 2003ko abenduaren 1a.

Informazioa: Ondarroako Udala-Euskara Zerbitzua.

Aurreratuz...

AZAROA

8

GAUEKOAK & GEU ELKARTEA & GAUEKOAK & GEU ELKARTEA

geu-ko bazkideak: 2 e
(ikus. 33. orr.)

- **KONTZERTUA**

JABIER MUGURUZA: "Enegarren Postala" (urrian aurkeztuko duen bere seigarren lana)


22.30etan ALDABE GIZARTE ETXEAN

(Sarrera: 2.- euro / 30 urtetik gorakoak: 4.- euro)

- **POESIA ERREZITALDIA** (euskaraz eta portugesez)

Javi Alonsoren eskutik: "Manuel BANDEIRA & Joseba SARRIONAINDIA"

00.00etan ALDABE GIZARTE ETXEAN



LABURPENA

8. atalaren laburpena: "Baietz esan eskatuko dizudan guztiari". Ana Arregi

Gutun bat Jonen eskuetan, azala gogorra, barrua leun, kaligrafia berezia: "Baietz esan eskatuko dizudan guztiari. Ez da alferrik izango, benetan. Maitasuna bereizketaz bizi da, bazterketaz, distantziatzen. Hitzetan bizi da eta ekintzetan hil.", zioen gutunak...

... Baina dena amets bat izan da, orain arte bizi izandako guzti-guztia Jonen

amets bat baino ez da izan, amets korapilatsu bat.

Joni ametsa bueltaka dabilkio buruan, errealtateari so eginez. Dutxara doa. Orain lasaia dago. Kalera irtetean gutun bat sumatzen du postontzian; hartzen du: azal gogorra, paper leuna, kaligrafia berezia; igorlea:

Tsvetaieva, Pasternak, Rilke; Zazpigarren ametsa.

KARMELE JAIO

9.- "Jainkoarenak egiten"



Gutunaren beheko aldean agertzen diren izen misteriosu haiek irakurri eta besterik egin gabe, orria tolestu eta jakako ezkerreko poltsikoan gorde du.

Kafe bat behar dut, pentsatu du. Hutsa.

Kafetegiko zerbitzariak aurrean jarri bezala, horrela eraman du kafea ezpain artera. Ez dio azukrerik bota. Ez du koilaratxoak ukitu.

Eskua jakako ezkerreko poltsikoan sartu eta gutuna atera du. Artega dago, deseroso.

Orrialdea barra gainean jarri behar izan du, eskuaren dardarak hitzak gora eta behera mugitzen zituelako, irakurketa ezinduz.

Eta hitzak barneratzen hasi da. Esaldi bakoitza gosez irensten.

Lagun agurgarri hori,

Cutun honen bitartez, Bilboko Udalak antolatutako XVII. Ipuin Lehiaketan "Neska haren irribarrea" izeneko ipuinarekin parte hartu izana eskertu nahi dizugu eta hurrengo urtean ere parte hartzeko gonbitea egiteaz gain,

Garagardotegia

Asteartetik
Igandera
IREKITA

La Blanca

- * Oilasko erreak
- * Kazolatxoak

Tfnoa. 945 27 90 46
Herrandarren kalea, 82
Gasteiz

EL
BAR
Kutxi

eguneko menua

LA RIOJANA
jatetxea
on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazulatxoak

Aiztogile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39

DIBUtec
Paper Berezioak
Arte Edertutako Materiala
Ink jet original eta birziklatuak
Bulego Materiala
Enkauterazioak
Plastifikazioak
Kamietan Estrampaketak
Kopiak

Zazkarprint
Inprimatzailea / Inprimategia
Edozein inprimaketara
mota.

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ • INPRIMATEGIA •

Zure denda erotikoa

SEX

PITILIN GORRI

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIA RTZUN

aurtengo deialdian irabazle izan den ipuinaren egilearen ezizena eta ipuin irabazlearen izenburua aurreratu nahi dizkizugu. Epaimahaiaren arabera, hurrengo izen eta izenburuarekin aurkeztutako ipuina izan da saria merezi duena:

Tsvetaieva, Pasternak, Rilke; "Zazpigarren ametsa"

Hiru aldiz irakurri ditu irabazlearen ezizena eta ipuinaren izenburua. Eta gutunari bukaera emateko beherago erabilitako hitz programatu haiek begiratu baino ez ditu egin, irakurri gabe. Orria presaz tolestu eta jakako poltsikoan sartu du berriz ere.

Euro bat utzi du barra gainean eta zerbitzariak hura hartu aurretik korrika atera da kalera, presaka. Barra gainean utzitako euroa zerbitzariaren eskuetara heldu baino lehen, iritsi da bera berriz etxeko atarira. Igogailuari itxaron gabe, binaka igo ditu eskailera, hirugarren pisura heldu arte. Arnasestuka ireki du atea.


Etxearen itxi usaina sentitu du, baina leihoa irekitzera abiatu aurretik, beste ezer egin baino lehen, ordenagailua piztu du. Eta ordenagailuak pizterakoan egin duen soinua leihoa ireki duen une berean heldu da bere belarrietara. Kanpoaldetik sartutako argi zuriak gela bereganatu duen une berean sortu da kolore urdina ordenagailuko pantailan. Eguzkiarekin loreak irekitzen diren moduan, ordenagailuak bizia hartu du kaleko argiarekin batera.

Eserlekuaren gainean dituen paper solte, koaderno eta hiztegi biak handik kendu eta ohe gainean utzi ditu. Pantailaren aurrean eseri, bilatzen zuen karpeta ireki eta "Neska haren irribarrea" izenburua duen dokumentua bi aldiz zapaldu du. Klik, klik. Eta ahotsa erabiliz, ozen irakurtzen hasi da.

Hamar aldiz abiatu zuen autoaren motorra eta hamar aldiz itzali. Ez, beste bost minutu emango zizkion. Nola utziko zuen han, nola alde egin ezer esan gabe...

Dokumentua gora eta behera erabili du, hitzak irristaka, labaintzen, txirrist egiten ibili dira pantailatik gora eta behera. Dokumentuaren ezkerreko aldetik eskuinera. Eskuinetik ezkerre. Esaldiaren hasieratik bukaerara eta amaieratik lehenengo lerroetara. Herrietako jaietan musikarekin batera jendeak elkarri besoa hartu

eta buelta erdia ematen duen moduan, horrela ibili dira hitzak, bata besteari besoa emanez, leku batetik bestera aldatuz.



Orduan Pablaren pertsonaia desagertarazteko gogoia sentitu du eta ipuinean Pablo aitatzen den guztietan kurtsoa jarri eta hitzak ezabatzeko botoiari eman dio, bi aldiz pentsatu gabe. Ondoren Victor pertsonaiaren sinesgarritasunaz egin du gogoeta. Eta Victor indartsuari hitz egiteko aukera gehiago eman behar diola pentsatu du. Hitzen arteko espazioa irekitzeko erabiltzen den teklari behin eta berriz eman eta leku gehiago eman dio nahi duena esateko. Victorren nortasunaz hausnarketa egin eta haren hitz egiteko modua zer-nolako izan behar duen erabaki du. Ondoren, neska biki haiek jatetxean elkartu bainoago, beste leku batean elkartu behar zituela pentsatu du. Hondartzako taberna batean edo Filologiako ikasle batzuek alokatutako pisan, beharbada.

Dokumentua dantzan jarritakoan eta ahoan oraindik ere kafearen mingostasuna sentitzen duela, Jainko sentitu da une batez.

Mahai gainean duen tabako paketea hartu eta esku artean zimurtu zaionean hutsik dagoela ohartu da. Mahaiak eskuin aldean duen kaxoia ireki eta bertatik lehendik irekita zuen beste pakete bat hartu du esku artean. Zigarroa piztu du, hautsontzi gainean kea botatzen utzi du, eta ordenagailuaren botoiak zapaltzen dituela irribarrea marraztu zaio ezpainetan.

Gaur ere pertsonai haiekin amets egin behar duela pentsatu du, eserlekutik jaiki eta komunera abiatu denean.

AMAIERA

© karmele jaio & geu aldizkaria

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak



Errege atea, 9 · GASTEIZ

Tfnok: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120

Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

LURRALDEBASUNA ETA LURRALDEAK EUSKAL HERRIAN

Tomas Urzainki Mina, Iruñeko historialaria

EUSKAL HERRIAK BERE PROZESU HISTORIKOAN IZAN
DITUEN ANTOLAMENDU POLITIKO-ADMINISTRATIBOEN
IRAKURKETEN ETA INTERPRETAZIOEN AURKEZPENA
ETA ANALISIA

LURRALDEBASUNARI BURUZKO EGILEAREN BIBLIOGRAFIA

- 1.- "El Derecho Vasco en la encrucijada europea". XI Congreso de Estudios Vascos, Eusko Ikaskuntza. Donostia 1991.
- 2.- "Navarra y el concepto jurídico de un Estado de Derecho", Pregón siglo XXI 8. zkia., IV. urtea, Iruñea 1996.
- 3.- "La Territorialidad de un Estado europeo". Sabino Arana Fundazioak antolatutako "100 años de Historia" jardunaldiak, Gasteiz, Bilbo 1998.
- 4.- "La Navarra marítima". Pamiela, Iruñea 1998.
- 5.- "Sociedad política/comunidad cultural: Navarra/Euskal Herria. Por el soberanismo al Estado-nacional" hika 90. zkia., ekaina, Bilbo 1998.
- 6.- "Navarra, el estado vasco" Herria 2000 Eliza, 161. zkia., Bilbo 1999
- 7.- "Aproximación a la formación territorial" 700 años fundación de Bilbao, 27. buletina, lpes, Bilbo 2000.
- 8.- "De la inanidad de las autonomías a la soberana del Estado propio". Herria 2000 Eliza, 170. zkia., Bilbo 2000.
- 9.- "Navarra el regreso de un Estado europeo". XV Congreso de Estudios Vascos- Eusko Ikaskuntza. Donostia 2001.
- 10.- "El rapto de un Estado. La historia negada de la nación navarra" zazpika, 121. zkia. Iruñea 2001.
- 11.- "La cultura política estatal d'Euskal Herria" L'Avenç, 258. zkia., Bartzelona 2001.
- 12.- "La territorialidad del Estado navarro", Irujo Etxea Elkarte. Lizarra 2001.
- 13.- "Recuperación del Estado propio". Intervención Comisión Autogobierno Parlamento CAV, Nabarra, Iruñea 2002.
- 14.- "Navarra sin fronteras impuestas". Pamiela, Iruña 2002.

Lurraldebasunari buruzko gai honetaz hitz egin ahal izateko, nahitaezkoa da, lehenengo, nagusi izan diren estatu espainiarraren eta frantziarraren eremu akademikoek egindako diskurto historiografikoaren ikuspegi interesatuak eta nagusiak albora uztea. Hori egin ondoren, has gaitzek gai hau aztertzen.

Euskal Herriko gizarteak, bere prozesu historikoan, alde batetik, estatu izaerako bere potentzia politikoa bateratzaile eta subiranoa izan du, Nafarroan mamitua, eta Europako gainerako estatuetatik bereizia; eta, beste aldetik, auzoko estatu handien espantsionismoaren ondorioz, eragin zatitzailea eta sakabanatzailea jasan du. Estatu nazional handi horiek diskurto historiko birtual eta desitxuratua bilatu izan dute, beren sistema juridiko eta politiko usurpatzailearen autoritarismoa justifikatzeko eta beren dominazioa justifikatzeko.

Baskoniaren kasuan, kultur eta hizkuntza-

eta politikoaren eta, bestetik, Inperioaren gainbeheraren ondoren zenbait aldaketarekin bada ere sortuko zenaren artean badela halako jarraitutasun bat; Nafarroako Estatu europarrarekin orainaldira arte iraungo du horrek. Europako gainerako lurraldeetan ez zen horrelako egoerarik sortu, Europako gainerako lurraldeak barbaroen inbasioen ondoren sortu baitziren, aurreko herriei inolako loturarik gabe edota erabat erromatartu eta menpean hartu ondoren.

V. mendetik VIII.era Baskonia inguruan, gero Iruñeko Erreinu modura eta beranduago, IX. mendetik XIX.era, Nafarroako erreinu modura, Europako gainerako herrialdeen aurrean lurraldebasun, zentralitate, legitimotasun eta batasun politiko bereziak zituela defendatzen zuen kontzientziak bizirik iraun duela erakusten duen dokumentazio ugari dago. Hala ere, hori guztia ukatu eta ahaztu egingo da estatu dominatzaileek eta beren kultura inperialistak

-ezaugarriek irauteaz gainera, argi eta garbi ikusi da, batetik erromatarrak iritsi aurretik bizi zen errealtate sozial

XII, XVI eta XVII. mendeetan egindako konkisten ondoren.

V. mendetik VIII.era informazio paregabea eskainiko digute inguruko esparru politikoetako iturri dokumentalek, batez ere frankoen erreinukoek eta bisigodoen erreinukoek, baina baita barne-iturriek ere, bai testuen bidez eta bai iturri arkeologikoen bidez.

Lurraldebasunaren edo batasun politikoaren interpretazio askotarikoei buruz oinarritzko hiru joera historiografiko osatu izan dira. Labur esateko: espainiarra, "Lurralde historiekoei" lotutakoa eta nafarra. Hala ere, bitarteko posturak ere badaude, betiere botereak bultzatutako bertsio birtual eta "ofizialetik" asko urruntzera ausartu gabe.

Bertsio espainiarra: euskal lurraldearen barne-batasun politikoa modu interesatuan ukatzeaz gain, Nafarroa euskaldunen estatu europar subirano izatea ukatzen dute. Planteamendu nahasgarri horrek penintsularen barnean legitimitate politikoa soilik Gaztelak duela dio, Espainiaren kontzeptu geografikoa monopolizatuz horrela, eta penintsularen batasun politikoa kasi betidanik sortua dela; eta diotena erakusteko, aurrekari faltsifikatuak bilatzen dituzte zeltiberiarrengan, erromatarrengan,



bisigodoengan eta Erdi Aroko erreinuengan. Bestalde, Nafarroaren jatorria oinarri faltsu batean kokatzen dute, "Erdi Aroko erreinu hispaniarra" zela baitiote, itxuraz Gaztela eta Leonen menpe zegoena. Interpretazio hori defendatzen duten historialari espainiarrak hauek dira, besteak beste: Claudio Sánchez Alborno, Justo Pérez Urbel, Ramón Menéndez Pidal, Ángel García Cortázar, Ángel Martín Duque etab.

Interpretazio baskongadoa: Euskal Herriko lurraldearen batasun politikoa ezkutuan uzten dute eta euskaldun gützion egitura politikoa Nafarroa izan dela ukatzen dute. Aldiz, lurralde historiko bakoitzak independentzia lukeen garai bat izan zela diote eta, berariaz edo ezkutuan, Gaztelako Erregearekin parez parez egindako itun batekin amaituko litzateke garai hori. Hala ere, nahitaezkoa da interpretazio horren jatorria hertsiki politikoa dela azaltzea. "Status quo" juridiko-politikoari eutsi behar zioten, gutxi-asko Gaztelaren boterearen mende gelditu arren; horretarako, ezin zuten Nafarroa zirela esan, hori egiteak Gaztelako Erregetzari traizio egitea adieraziko lukeelako; gainera, konkista aitortuz gero ituna ezinezkoa zela jabetu ziren eta, horregatik, funtsean egiri huts egin gabe, 1200. urte aurretik independenteak zirela eta urte horretan, oinarri politiko gisa, Gaztelarekin parez pare ituna egin zutela diote. Baskonia zatikatuaren interpretazio hori defendatu izan duten historialari ezagunenak hauek dira: Novia de Salcedo, Labairu, Gorosabel, Arana etab.

Gaur egun horrelako beste joera berri bat sortu da, 1200. urte aurretik Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa Nafarroakoak zirela aitortu arren, konkista eta anexioa egin ondoren lurralde horiek Gaztelarekin zituzten harremanak ikusita, praktikan hitzartutako estatus bat osatzen zutela diotenena. Hala ere, gero eta gehiago dira interpretazio faltsu horiek salatzen dituztenak, gaztelauen aldekoak, boluntaristak, entregistak, presentistak eta paktistak direla esanez.

Gainera, "jurista" neoforalistek, autonomistek eta estatutistek, benetako planteamendu zientifikoei eta enpirikoei bizkar emanez, diote lurralde historiko deitzen diren horien zuzenbide foralean antzekotasun handiak daudela, baina ez dutela lurraldetasun osoari begira zuzenbide bakarra eta komuna adierazten; eta ondorio gisa lurralde osoan ez dela inoiz batasun politiko eta juridikorik izan diote, hori horrela ez izan arren. Probintzia desberdinetako euskaldunek kasualitatez antzeko eskubide foralak dituztela diote, baina itxuraz ez dakite zeren ondorio den hori, zerbait naturalaren edo genetikoaren

ondorio balitz bezala jokatu dute eta. Ahaztu egiten dute hizkuntzan ere dialektoak beti hizkuntzaren ondoren datozela, eta ez alderantziz. Gauza bera gertatzen da hemen ere, Pirinioetako edo Nafarroako Zuzenbide bakarrekin, hainbat herriren konkistaren ondoren hautsiko baita.

1200. urte inguruan gertatutakoek oihartzuna izan dute aldian-aldian historian, gaur egun arte. Ekialdeko Nafarroan 1512an gertatu zenarekin ere antzekoa gertatzen da. Batez ere hainbat gertakari geopolitiko handi sortuko zituzten une kritikoei bat etorritik: XVIII. mendeaz geroztik Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako mendebaldeko lurraldeetan Espainiarekin sortuko ziren tentsioetan; Konbentzioko Gerran, 1789tik aurrera, Frantziak onartzea lortzeko; eta XIX eta XX. mendeetan, Espainiaren nagusikeriaren aurrean foru-instituzioak babesteko; gaur egun ere konkistaren oroimena piztu da berriro, borondatezko emate eta hitzamen modura gaizki ulertuta historiografia espainiarraren aldetik, baina eskubide historiko deritzenak eta autonomizismoa justifikatzeko bilatu nahi duten argumentu dela kontuan hartuta.

Nafarroako errealitatearen egiaztatzea: aldiz, indar handiagoz edo txikiagoz, Nafarroako Erreinuak Europako estatu dela diote beste batzuek, eta euskaldunek izan duten bakarra dela. Nafarroa euskaldunon erreinu izan zen. Euskal lurren batasun politikoa Nafarroa da. Halaxe diote lekukotasun juridiko eta politiko askok, X, XI eta XII. mendeetan Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Errioxako egungo lurraldeetan zeuden nafar lurraldeak egiaztatuta eta 1016ko eta 1127ko nazioarteko hitzarmenen eta 1177ko Londresko Laudo Arbitralaren lurraldetasunean oinarrituta; 1190ean itsasoko urak Castro Urdialeseraino iristen ziren,

dokumentazioaren arabera. Lurralde horien izaera nafarra lege eta foru askotan azaltzen da. Biztanleak nafarrak zirela adierazten duten bidaia-liburuak ere badira, Americ Picaudena (1134koa) eta Benjamín Tuterakoarena (1170koa), adibidez. Konkista horiek nahiko gertutik ezagutu zituzten historialarien testuak ere badira, besteak beste: Annelier eta Ximenez de Rada. Interpretazio hau defendatu dutenak asko dira: Arnald Ohienart, José Moret Mendi, Arturo Campion, Anacleto Ortueta, José M^a Lacarra, Antonio Ubieto Arteta, Ildefonso Gurruchaga eta Pierre Narbaitz.



1200. urtean gertatutakoaren aurrean hiru joera hauek egindako balorazioak ere ez datoz bat arlo hauetan:

Interpretazio espainiarrarentzat, egun joera horretako iturriek diotena ezkututuz, konkisten berri ematen baitute, ustezko euskal probintzia batzuk Gaztelako Erregeari borondatez emango litzazkioke. "Lurralde historikoei" lotutako joeraren arabera, parekoen artean egindako ituna litzateke, berariaz nahiz isilean praktikatik sortua, foru-erregimenaren oinarri litzatekeena.

Joera nafarrarentzat eta iturri dokumentaletan eta materialetan oinarrituta, Nafarroak inoiz onartu ez zuen inbasioa, konkista eta okupazio militarra litzateke.

Oroimen kolektiboaren manipulazio gogorrak eta kultur indarkeriak itxuraldatutako bertsio historiko ofizialak gezur horretara lotu gaituzte. Horregatik da horren zaila lurra "borondatez ematea" eta antzeko asmakeriak alboratzea. Konkista sistematikoa, okupazioa, nazioarekin eta hizkuntzarekin amaitzeko ekintzak eta aurrez ondo prestatutako asimilazioa kontu handiz ezkutatu dira, horiek guztiak justifikatzeko planteamendu onargarriak ez dagoenez. Ez dago Berant Antzin Aroko Baskoniaren, Galia Komatoaren edota Iruñeko/Nafarroako Erreinuaren errealitatea alboratuko duen oinarri dokumentalik eta, botereen txandakatze bat izan zela erakusteko, Asturias eta Leonek eta Gaztelako Konderriak izan zituzten behin-behineko boterealdiak aipatzen dituzte, baina oinarri dokumentalik gabe. Gerora faltsifikatutako dokumentuak erabili izan dira horretarako, edo beren kroniken interpretazio okerrak.

Bi komunitate izan zirela defendatzea **sekulako dikotomia** da. Euskaldunak eta nafarrak ezin gara zatikatu eta bereizi, ez gizabanako modura eta ez talde modura. "Nafarra" kontzeptu juriko-politikoa da batik bat. Codex Calixtinus-ean (1134) nafar deritze Arabako, Bizkaiko eta Naxerako biztanleei, Okako mendietatik aurrerako lurretara arte, eta horietatik aurrera (Atapuerca) hasiko da "Hispania". 1177ko Londresko Laudo Arbitralari egindako alegazioetan, "bertako biztanleek" Nafarroako erregeari "leialtasun handia" diotela ageri da. 1200. urteko konkistaren ondoren, konkistatutako lurretan nafarra zela eta ez gaztelaua aldarrikatzen zuenak zigorra jasotzen zuen Gaztelako Erregeari traizio egiteagatik. Gizartean bertan, euskaldun guztiok politikoki nafarrak gara eta nafar guztiok kulturalki euskaldunak. Txanpon beraren bi aurpegiak baitira.

***oharra:** hemen argitaratutakoa artikuluko osoaren lehen zatia da

itzulpenera: azitri

KEPA SOJO ZINE ZUZENDARI

FILM LABURRETATIK FILM LUZEETARA SALTO EGINEZ



**Laudion 1968.ean
jaiotako gizon honen
izena denbora eta lanaren
poderioz ezaguna egin da.
Kepa Sojo orain arte
laburmetrai zuzendari
bazen ere, udazkenetik
aurrera bere lehenengo
luzemetraia grabatuko du.
Hau gutxi balitz, gazteak
ere “Bienvenido Mr.
Marshall” izeneko
tesiarekin Euskal Herriko
Unibertsitatean
doktoretza lortu du.**

Sei urte dira Sojok bere lehen laburmetraia egin zuenetik, “Cien maneras de hacer el pollo al chilindrón”, alegia. Ordutik “Looking for Chencho” eta “Cuando puedas” ere zuzendu ditu, azken hau iraganeko martxoan Laudion grabatuta. “Nire herrian grabatzea izugarrizko ohorea da niretzat”, dio. Hori dela eta martxan duen “El síndrome de Svensson” luzemetraia ere bertan gauzatuko da, Palentzia eta Burgoseko irudiak agertzeaz gain.

Euskal Herriko herri bateko jaietan jotzen duen musika talde baten kontzertua ikustera datozen lagun batzuen gaineko istorioa da luzemetraian jorratuko dena. Keparen esanetan, “komedia zentzugabea dugu hau, surrealismoa nagusi den horietakoa”. Esaterako Laudiokoak honako adibideak aipatzen ditu, “lagun taldeak Euskal herriko muga zeharkatu behar duenean aizkolari bat eta bertsolari bat agertuko zaizkie ongi etorria eginez. Besteak beste, pertsonaien artean badago bat daltonikoa dena eta horregatik ikurrina ikustean koloreak nahastuko ditu, eta Ingalaterrako bandera dela pentsatuko du”.

-Erraza izan al du Kepa Sojok zine munduan bere txokoa topatzeko?

Zaila da zure lekua topatzea, jende asko baitago hori lortu nahian eta batez ere Euskal Herriari dagokiola. Horrexegatik orain egingo dudana luzemetraia Madrilgo produkzio-etxe batekin egingo dut, nahiz eta Gasteizko produkzio-etxe batekin ere arituko garen. Zinemari dagokionez

aurtengo egoera oso eskasa izan den arren, nik espero dut nire lekutxo-edo eskuratzea; aurtengo oso-oso eskasa izan da zinema ekoizpena estatuan batez ere, baina nik espero dut zerbait lortzea. Nik eginiko estiloa komedia arloan mugitzen da, baina ez da komedia arrunta baizik eta oso berezia, eta hor, hain justu, aurki dezaket tokia.

-Laburrak egitetik luzemetraia egitera pasako zara, "El síndrome de Svensson" izeneko?

Bai. Hauxe izango da aipatutako komedia zentzugabearen ildotik egingo dudana lehendabiziko luzemetraia. Gidoia duela urtebete-edo daukat eginda eta udan grabatzeko asmoa banuen ere, tesia bukatu ondoren opor txiki batzuk hartzea erabaki nuen. Hortaz, orain hasiko gara grabazioarekin. Orain arte oso lanpetuta ibili naiz tesiarekin, hamabi urte eman eta gero azkenik doktorea naiz.

-Luzemetraiarekin ausartzeaz gain, "Bienvenido Mr. Marshall" Berlangaren filmaren inguruko tesia amaitu berri duzu... Aurtengoa urte borobila zurea.

Bai, oso urte polita izan da. Gainera, hirugarren laburmetraia grabatu genuen, "Cuando puedas" izeneko, eta aurreko "Looking for Chencho"rekin 15 sari eskuratu ditugu orain arte, horietako batzuk duela oso gutxi. Horretaz gain, nire tesi doktora ere behingoz amaitzeak esfortzu handia eskatu dit, eta horregatik uda lasai hartzea erabaki nuen.



Naturaren isladak

Erbinudea (Mustela nivalis), Europako haragijalerik txikiena. Non eta Txagorritxu inguruan aurtengo uztailean.



ESLOVENIA-KROAZIA-BOSNIA-HERZEGOVIA



- **NONDIK NORA:** Gasteiz-Eslovenia, Kroazia eta Bosnia-Herzegovina.
- **HERRIEN DATUAK:**
- **Eslovenia:** 1,9 milioi biztanle bizi dira. Hiriburua Ljubljana da. Etniei dagokionez, %88 esloveniarrak dira, %3 kroaziarrak, %2 serbiarrak eta %1 bosniarrak. Erlijio nagusia katolikoa da.
- **Kroazia:** 4,2 milioi biztanleko errepublika da, eta bere hiriburua Zagreb da. %78,1 kroaziarrak dira, %12,2 serbiarrak eta gainontzekoak musulmanak, hungariarrak, esloveniarrak, txekiarrak, albaniarrek eta montenegroar. Erlijio nagusia katolikoa da.
- **Bosnia-Herzegovina:** 3,8 bosniar bizi dira bertan. Hiriburua Sarajevo da. %44 bosniarrak dira, serbiarrak %31, kroaziarrak %17 eta jugoslaviarrak %5,5. Erlijio nagusia musulmana da (%40), ortodoxoa gero (%31), katolikoa ondoren (%15) eta protestantea azkenik (%4).
- **NOLA JOAN:** Modurik merke eta interesgarriena trenez joate da. Gasteiztik bertatik ateratzen da trenua Austriaraino, eta hortik Ljubljana-raino (Esloveniako hiriburua).
- **ZENBAT DENBORA:** 15 egun.
- **AURRETIK PRESTATU BEHARREKOA:** Pasaportea eramatearekin nahikoa da. Europako Batasuneko kideek ez dugu zertan bisa eraman.
- **MOTXILAN ZER ERAMAN:** Garai honetan baldin bazoazte Kroaziako kostaldean bero dezente topatuko duzue, baina gauz freskatzan du. Beraz, jertsea eta zira ere eramatea garrantzitsua da. Bosnian ere euri dezente egiten du.
- **TXANPONA:**
- **Bosnian:** Deutsche Mark bihurtgarria.
- **Eslovenia:** Tolarra.
- **Kroazian:** Kuna.
- **HIZKUNTZA:**
- **Bosnian:** Bosniera (serbokroazierak estatu honetan duen izena).

- **Eslovenian:** Esloveniera (ofiziala, %91), serbokroaziera, italiara eta hungariera.
- **Kroazian:** Kroaziera (serbokroazierak estatu honetan duen izen ofiziala); italiara, hungariera eta txekiera.
- **HELBIDE-KONTAKTU INTERESGARRIAK:**
- **Ljubljanan** zail xamarra da alojamendua lortzea.
- **Kostaldean eta Bosnian** jendea tren edo bus geltokietara doa etxebizitza merkeak eskaintzera. Prezioak negoziatzeko toki egokia da.
- Turismo bulegoetara joanez gero ere informazioa lor dezakezue. Eta emakume edadetuak ere logelaren bat eskainiko dizuete.
- **TOKIAREN DESKRIBAPENA:**
- Eslovenian** espero ez duzuen topatuko duzue: paraje oso berdeak, eder askoak.
- Kroaziari** dagokionez, Dalmagiako kostaldea oso berezia da, Alpe Dinarikoak itsasotik oso hurbil baitaude. Mendien harkaitzak eta itsasoaren arteko kontrastea izugarri ederra da.
- Bosnia** ere oso menditsua da. Euskal Herriaren antza ere hartuko diozue zenbaitetan. Bertan meskitak ikustea oso bitxia da, Goierriko edozein herritan meskita bat ikusiko bagenu bezala.
- **PLAN EREDU EGOKIA:**
- Gutxienez bi asteko bidaia egitea gomendatzen dugu:
- Gasteizen tren hartu Austriaraino. Hortik Esloveniako hiriburura (Ljubljana) joango gara.
- Eslovenian Bled lakua eta Skocjan-go kobak ikusiko ditugu.
- Handik Zagreb-era (Kroaziako hiriburua).
- Gaueko tren hartu eta Kroaziako kostaldetara joan, Split hirira.
- Ferry-an Adriatikoko itsasoan dagoen Korcula irlara joango gara (Marco Poloren ustezko jaioterria da).
- Irlan Velaluka kaia bisitatu.
- Handik hegoaldera joango gara, Dubroknik-era.
- Dubroknik-etik autobusez Bosnia-Herzegovinako hiriburura: Mostar-era.
- Sarajevo izango da hurrengo jomuga (Bosnia-

- Herzegovinako hiriburua).
- Bueltatzen Zagreb-era. Eta trenez Gasteiza.
- **AHOLKUAK- JAKIN BEHARREKOA:**
- Duela gutxi guda bat izan dela kontuan izaki, ongi dago horri buruzko interesa agertzea, baina ez egon uneoro horretaz galdetzen, jendea oso erreta baitago. Hobe duzue gero inguruan aurreiritzirik ez eramatea, jendeak bere ikuspuntuak eman ditzan.
- Bosnian ez zaitzete markatu gabeko bideetatik joan, minak egon daitezkeelako.
- Espero zitekeenaren kontra, jendea oso irekia da.
- Musulman baten etxean sartuz gero, kendu zapatak. Kroazian ere egiten dute, nahiz eta katolikoak izan.
- **DERRIGORREZ EZAGUTU BEHARREKOA:**
- Sarajevo:**
- Bazar turkiarra. Izugarria da, oso bitxia.
- Hilerriak: estadio olinpikotik gertu dagoena ikaragarria da.
- Korcula irlan:**
- Inguruko mendi txikiak igo eta bertatik ikusten den paraje ederraz gozatu.
- Bled lakuan:**
- Lakuari bueltatzea oso ematea merezi du, oso gustura egiten da.
- Dubroknik:**
- Harresietatik paseoa eman. Teilatuak ikusten dira eta ederra da oso.
- Mostar:**
- Kale bat dago fronte lerroa zatitzen zuena. Gerra garaian bezala dago. Oilo-ipurdia jartzen zaizun bertan, gudaren krudeltasunaren isla baita.
- **BESTELAKOAK:**
- **Janaria:** Bosnian turkiar jatorriko jaki asko daude. Nahiko onak.
- **Kafea:** Oso ona da kafe turkiar 'expreso'. merkea da.
- **Bazarretan:** Oso gauza politak daude. Tratuak egin.
- **Dantza:** Moreska dantza (Korculan) Euskal Herriko ezpata-dantzaren oso antzekoa da.

tzulpena: aztiri

Soluzioa: 34. orrialdean

GEU ELKARTEA, EUSKARAZKO ESKAITZA HANDITUZ

Ikasturte berriaren hasierarekin batera Geu Elkarreak eskaintza berriak ere luzatuko dizkie euren bazkideei. Euskarazko kultur ekintzak gure hirian areagotu nahian aurten Geu iazko eskaintza mantentzeaz gain, indartu eta berritu nahi du. Gauzak horrela, eta Geu Elkarrearen programa ezagut dezazuen, hurrengo lerroetan laburki azaltzen dizuegu zuen esku dagoen eskaintza.

josune velez de mendizabal

• GEU ELKARTEA GAUEKOAKekin

ELKARLANEAN: Geu Elkarreak Gauekoak egitarauarekin egin dituen ekintzak oso positibotzat jo ditu eta hortaz, datorren ikasturtean ekintza kultural erakargarriak egiten jarraituko dugu elkarlanean. Orain arte egindakoak: Aldaben, "Karidadeko Benta" (Jon Maia), Ander Lipus, Labrit, Koldo Amestoi, Mikel Telleria, Patxo Telleria eta Mikel Martinez, Itziar Rekalde eta "Bentri-magik" ikuskizuna. Principal antzokian, berriz, "Hamar mezu eta dei bat" eta "Kutsidazu bidea Ixabel" emanaldiak eskaini ditugu. Datorren azaroa eta abendurako ikuskizun berriak ditugu, oso interesgarriak direnak. Jakinararen gainean izango zaituztegu.

• **GEUREKIN MENDIRA:** Mendi taldeak hilean behin, igandeetan, txangoak egiteko parada luzatu dizue aurten, eta horrela izango da urritik aurrera ere. Merezitako atsedeneren ostean, adi proposamen berriei, beraz!

• **GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA:** Berritasunen artean honako literatur kluba izan dugu. Euskaraz irakurtzeaz gozatzen direnentzako topaleku bilakatu da hileroko azken asteazkenean Hikaateneo (Pintore kalea 13 - Alde zaharra). Hauek izan dira mintzagai izandako liburuak eta bisitatu gaituzten idazleak -azpimarratuta daudenak-: "Hirira doan bidea" (Natalia Ginzburg), "Hollywood eta biok" (Javier Cillero), "Rock & roll" (Aingeru Epaltza), "Bitartean heldu eskutik" (Kirmen Uribe), "Katedrala" (Raymond Carver), "Mentura dugun artean" (Anjel Lertxundi), "Harrotasuna" eta

aurrejuzkuak" (Jane Austen), "Azukrea belazeetan" (Inazio Mujika) eta "Lagun Izoztua" (Joseba Sarrionaindia), Hasier Etxeberriaren bisitaz gain, inaugurazio ekitaldirako.

• **KULTUR ERROTA:** Hileroko azken asteartean formatu txikiko kultur ekintza anitzak izan dira ikusgai Parral tabernan. 'Bihar Berriz' rock-pop talde zarauztarra, Igor Arzuaga abeslaria, Doro Zobaran ipuin kontalaria, Gilkitxaro Antzerki Taldea, eta Bertso Musikuak, besteak beste, horietako emanaldi batzuk izan dira. Azarotik aurrera ikuskizun berriak eskainiko ditugu.

• **"MINTZALAGUNA" ZABALDUZ:** euskaraz mintzatzeko, jende berria ezagutzeko, ondo pasatzeko, euskal hiztun komunitatea indartzeko..., gurean euskararen normalizaziorako beste urrats bat emateko, azken finean. Zenbat eta lagun gehiago orduan eta aukera gehiago. Aurten talde bat osatu da, baina oraingo ikasturterako interesa duzuenentzat aukerak zabaldu nahian, udan bidalitako fitxa bete baino ez duzue egin behar, edota elkartera deitu (945.22.21.53, arratsalde).

Zuen partetik ekintza hauekiko balorazio eta harrera oso ona jaso dugunez, ekitaldi hauek aurten bermatzeaz gain, indartu eta gehiago zabaldu nahi ditugu. Eta noski, berritasunak izateaz aparte, sorpresa ere nahi dute izan. Hortaz, adi Geu-ren agendari, datozen hilabeteetan honakook ezagutuko baitituzue.

**GUZTIOI ESKER MILA HOR
IZATEAGATIK**

geurekin mendira

zatoz geurekin mendira!

Urriaren 19an
**URBASAN,
DULANTZ (1239). SAN
ADRIAN**

ARDURADUNA: EDURNE
(945146296)

Irteera tokia: Lovaina plazan,
goizeko 9.00etan

kangeuroak

Zerrenda honetan agertu nahiez gero eman zure izena eta telefonoa eta zehaztu zure ordutegia: 945222153 / geugaste@grn.es

• Ordutegi guztiak

Amaia. 635742429

• Goizez

Ilune. 945010322

• Arratsalde

Patxi. 652743205

• Gaez

Nerea. 658733934

• Asteburuak

Nagore. 945281124

Marta. 606415235

• Gau batez (afariak, ezkontzak,...)

Miryam. 656761588

GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA- 2003 / 2004 IKASTURTEA

geu elkartearen ekimenez

Hikaateneoa, Pintore kalea 13

Hilabetearen azkeneko asteazkenean, 20:00etan

Koordinatzailea: Iban Zaldúa.

Eta pixkanaka, irakurketa haiekin nire barneko egoera eta liburua ezkontzen hasi nintzen, menturaz zein inoren aholkuz egindako irakurketei esker. Ipuin-liburuak egokiak nituen tempus jakin batean kontzentraturik dauden elementuak ikusten saiatzeko; arratsaldeko argi nagia ona dut burua argi doirantz hurbildu eta poesia-liburu bat zabaltzeko; gorputza tenple epiko halako batez sentitu behar dut lauhun orrialdetik gorako eleberri baten kontatzen zaizkidan ibilerei ekiteko... Irakurketa konpultsiiboak, plazer hutsekoak, buru eragozgarriak, autoestimua gizengarriak, modaren agindura burutuak, loguraren kontra eginak...

Halatan ere, hona niretzat liburu gogoangarrienak: liburua irakurtzen amaitu beharrak halako nahigabe malenkoniatsuak dakarkidatenak dira; eta baita irakurtzen hasi aurretik bukatu bitartean nire baitan zerbait aldatu dutenak, zerbait hori denik mendreana baldin bada ere. Eta, batez ere, letren ezia gozatzen laguntzen didatenak...

Anjel Lertxundi

Urriaren 7a, asteartea

Aurkezpen ekitaldia. Harkaitz Canoren hitzaldia:
"Nabokov-en salabardoa".

Urriaren 29a, asteazkena

Xabier Montoia, Denboraren izerdia, Elkar 2003.

Azaroaren 26a, asteazkena

Robert Louis Stevenson, Altxor uhartea, Ibaizabal 1991.

Abenduaren 17a, asteazkena

Patxi Zubizarreta, Barrikadak, Alberdania 2003.

Urtarrilaren 28a, asteazkena

Patricia Highsmith, Ripley trebea, Igela 1999.

Otsailaren 26a, asteazkena

Rikardo Arregi, Kartografia, Alberdania 1998.

Martxoaren 31a, asteazkena

Isaac Bashevis Singer, Zortzi kontakizun, Elkar-Alberdania 2002.

Apirilaren 21a, asteazkena

Jokin Muñoz, Joan zaretenean, Alberdania 1997.

Maiatzaren 26a, asteazkena

Bernardo Atxaga, Soinujolearen semea, Pamiela 2003.

Ekainaren 30a, asteazkena

Arantza Iturbe, Lehenago zen berandu, Alberdania

• GAUEKOAK & GEU ELKARTEA & GAUEKOAK & GEU ELKARTEA • GAUEKOAK & GEU ELKARTEA & GAUEKOAK &

A
Z
A
R
O
A
K

8



KONTZERTUA

JABIER MUGURUZA: "Enegarren Postala"
(urrian aurkeztuko duen bere seigarren lana)

22.30etan ALDABE GIZARTE ETXEAN
(Sarrera: 2.- euro / 30 urtetik gorakoak: 4.- euro)

POESIA ERREZITALDIA

(euskaraz & portugesez)

Javi Alonsoren eskutik:

"Manuel BANDEIRA & Joseba SARRIONAINDIA"

00.00etan ALDABE GIZARTE ETXEAN

Geu-ko bazkideek sarrerak prezio berezian erreserbatzeko aukera dute: 2 euro (dauzkagunak agortu arte).
Geu elkartera deituta (arratsaldez) + geuelkartea@grn.es posta elektronikoaren bidez, azaroaren 5a baino lehen.

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

2002-2003
DENBORALDIA



2003-2004
DENBORALDIA





Aisialdia

Adintsuak

Gazteak

bizi-kalitatea

Osasuna eta prebentzioa

Kirola

Kultura eskaintza



Bekak

Talde baztertuak

EQUAL

Lanbide heziketa eta enplegua

laneratzea

Gazteen artean enpresa sortzeko kultura sustatzea



Kooperazioa

Elbarritasunak

Talde baztertuak

gizartekotzea



Historia ondarea (berreskuratzea)

Kultura ondarea: hizkuntza, historia, geografia, kirola

Natura ondarea (ingurumena)

garapen iraungarria

Lurraldea sustatzea

Obra Social

Caja Vital  Vital Kutxa

Gizarte-Ekintza